



Energia komunitateak

Bertan energia sortu eta kontsumitzeko modua / 2-4

**Euskaraz lasai
hizketazeko tokiak
dira ariguneak eta
izena emateko epea
despeditzean da** / 12-13

**Abenduko uholdeek
eragindako kalteei
aurre egiteko
969.697,13 euro jaso
dituzte 10 udalek** / 9

**Sakana Sarietara
hautagaiak
aurkezteko epea
hilaren 30era arte
dago zabalik** / 7

**Imanol Erbiti Ollok
txirrindularitza
denboraldi berriari
jarraikortasuna
eskatzen dio** / 16-17

**Mendizaletasunaren
Galan bi omendu
sakandar: Axio
Aranburu eta
Joxemi Larrea** / 18-19

**Orritz taldearekin
trukean, Arrola
taldeak dantza
jaialdia eginen du
bihar Irurtzunen** / 23

Sakanaoptika
optometria • audiometria • hantahytologia
Inhostia zeharbidea 10 (Altsasu)
948 563 124
www.optikasakana.com

2x1
Doako entzumen aztergeta
AUDIFONOMETAN

Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin

"Edozein izan daiteke energia komunitate baten bultzatzaile"

ZUHAITZ AREITIO REMENTERIA GARAPEN AGENTZIAKO PROIEKTUEN ARDURADUNA
Bioenergia komunitateak sortzeko prestakuntza saioa antolatu du Goienerek Irurtzongo Dinabiden heldu den asteazkenerako, hilak 26, 10:00etatik 13:00etara

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Argindarraren eta gasaren prezioak eguneroko hizketa bide bihurtu zaizkigun honetan, energia komunitate kontzeptua gero eta gehiago entzuten da.

Energia komunitatea. Zer da?

Bere ezaugarriak dira, batetik, partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarritutako erakunde juridikoak direla. Bestetik, erakunde juridiko horietako bazkide edo kideak izan daitezke pertsona fisikoak, enpresak edo tokiko entitateak, udalak barne. Bestalde, bazkideek daukate entitate juridiko horietan erabakitze ahalmen guztia. Hori azpimarratu nahiko nuke. Zeren asko entzuten da komunitate energetikoen inguruan, baina beti ez daude bazkideak eta pertsonak horien atzean, eta hori gakoa da.

Zer motakoak daude?

Bi mota daude. Energia Berriztagarrien Komunitateak, energia iturria energia berriztagarriak dituztenak. Eta Herritarren Energia Komunitateak, baina haien oinarria ez dira energia berriztagarriak.

Zertarako sortzen dira halako komunitateak?

Helburuak desberdinak dira. Baina garrantzitsua da herritarrek ahalduzkoa eta herritarrek energiaren burujabe egitea. Gainera, Europatik hala dator. Daukagun energia menpekotasuna izugarria da, arduratzekoa. Horregatik, Europatik herritarrek animatu nahi dituzte energia komunitateak sortzera. Komunitate horiekin hainbat onura lortuko genituzke. Batetik, ekonomikoak; energia norberak sortuz aurrezten delako. Eta, aldi berean, bertan enplegua sortuko genuelako. Bestetik, onura demokratikoa dago. Herritarrek ahalduzkoa direlako, baina baita enpresak, tokiko administrazioak ere. Eta elkarrekin lan eginez demokrazia egiturak sortzen ditugu. Hezkuntza onurak baita ere, energia trantsizioan herritarrek trebatzen direlako, eta sentsibilizazio eta burujabetzarako gune bat direlako. Ekologikoa ere, berriztagarrien bidez lortzen badugu, energia askoz ekologikoa izanen da. Jakina, herritarren energia burujabetza

sortzen du, eta energia trantsizioan herritarrek ahalduzkoa da. Gainera, lekuan lekuko energia sortzeko aukera daukagu, despopulazioari aurre egiten ere lagunduko du.

Geroz, edozeinek sortu dezake energia komunitate bat.

Edozein izan daiteke komunitate baten bultzatzaile, eta, gainera, hori da helburua. Azpitik gora. Hau da, herritarrek bultzatutako energia sortzeko eta kontsumitzeko eredu bat da.

Zer baldintza bete behar dira energia komunitate bat sortzeko?

Baldintza baino gehiago, borondatea da. Energia komunitatea sortzeko lanketa dago, baina pausoak ez dira batere konplikatuak. Lehenengo energia komunitatea sortu nahi duten herritar talde bat elkartzeari. Noski, laguntza bat ere beharko dute hori guztia egiteko. Ondoren, parte hartzeko prozesua dinamizatu behar da. Komunitatea sortu eta hurrengo pausoa da komunitatearekin aztertzea zer lege egitura sortu nahi den. Segituan eman beharreko pausoa teknikoak da, aztertzea zer auke-



Zuhaitz Areitio Rementeria, Sakanako Garapen Agentziako proiektuen arduraduna.

ra dauden energia sortzeko eta kontsumitzeko. Hurrengo pausoa bideragarritasun azterketa egitea litzateke. Bukatzeko, hori guztia bideragarria ikusten bada, komunitatea sortzeko finantzazioa bilatzea.

Zer azpiegitura behar dira energia komunitatea egiteko?

Energia sortzeko lekua behar dugu. Eta gauza tekniko bat denez, laguntza dinamizaziorako, komunitatea legez sortzeko eta laguntza teknikoak. Horretarako guztirako dirulaguntzak badaude. Gure helburua da hel-

du den urtean Sakanan energiari buruzko bulego bat sortzea da. Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean gabilta. Haren bidez era horretako proiektuak sortzeko informazioa helaraziko genieke herritarrei, udalei eta enpresei; aurretik aipatutako pauso horiek nola egin eta zer dirulaguntza eta laguntza dauden azaltzeko.

Gaur egun Nasuvinsa, Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoak, Lakuntzan bulegoa du.

Gehiago dago zuzenduta etxebizitzaren birgaitze energetikoko



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



dirulaguntzetara. Baina gehiago behar da eta, dagoeneko, eskaintzen duen zerbitzu horri gehitu nahi genioke. Energia sortu eta kontsumitzeko hainbat eredu daude, eta garrantzitsua da sakandarrek informazio guztia duen leku eta pertsona bat izatea.

Energia sortzera mugatzen dira? Edo banaketaz eta energia biltegitratzeaz arduratzen dira?

Guztiz. Energia komunitatea da pertsona edo entitate talde bat eta guztiek erabakitzen dute zer sortzen den, zenbat sortzen den, non sortzen den eta beraien artean banaketa egiten den. Baita energia hori zertan erabiltzen den. Helburuak desberdinak izan daitezke: bertako partaideen kontsumoak asetzera; badaude nolabaiteko sentsibilitatea daukaten energia komunitateak eta ekonomia zailtasunak dituzten pertsonak laguntzeko energia hori erabiltzen dutenak; auto elektrikoak partekatzeke erabiltzen dutenak... Biltegitratzeko baita, sor-kuntza eredu horren baitan aukera posible bat da, eta oso interesgarria.

Eguzkia, ura, biomasa... Hainbat jatorritako energia baliatu daitezke energia komunitate batean?

Hainbat energia iturri daude eta horien erabilerarekin energia sortu dezakegu: eguzki energia (termikoa zein fotovoltaikoa), haizea, hidroelektrikoa edo basoetako biomasa. Komunitate batzuk bakarria izanen dute, eta beste batzuk izango dituzte bi, hiru edo lau energia iturri. Beraien esku dago, beraien gaitasunen arabera sortuko baitute energia.

Zein lege egitura dute?

Ez dago inolako mugarik. Baina, orokorrean, gure inguruan eta Nafarroan ezagutzen ditudan komunitate gehienak, edo guztiak, kooperatibak dira. Logika dauka, elkarbanatzeko helburuarekin sortzen direlako.

Energia komunitateak herri eta auzoekin lotzen ditugu. Eta industrialdeak?

Berdintsu. Dena ondo bada, industrialdeekin lanean heldu den urtean hasiko gara. Nasuvin sarekin eta Nafarroako Gobernuarekin asteartean bilera izan genuen. Industria guneetan energia komunitatea kudeatzeko erreminta bat aurkeztu ziguten. Sakanako enprekin hartu-emanen gaude eta beraien



interesa ere bada energia komunitateak sortzen hastea. Ondo bidean, 2023an enprekin ere energia komunitateak sortzen hasiko gara.

Industrialdetik gertu dagoen etxeren bat onuradun izan daitezke?

Hori da helburua, etekin handiena ateratzea era honetako egiturei. Hala izatea borobila litzateke. Ordutegiagatik logikoa da, zeren enpresek eta etxebizitzek kontsumo ohitura desberdinak dituzte. Legez posible da.

Nolako dirulaguntzak daude energia komunitateak egiteko?

Orain arte garatu diren proiektuek dezenteko dirulaguntza izan dute. Eta kontuan izanik aurrean daukagun energia egoera, aurreantzean ere dirulaguntzak izanen ditugu. Laguntzekin ez dugu halako proiektu bat %100ean ordainduko. Energia komunitateak finantzatzeko badaude crowdfunding erako aukera, banketxe bidezko mailegua, banku etikoak, kooperatiba bidezko maileguak... Guztia aztertu behar da. Horrelako proiektuak sustatu eta sortzeak epe motz eta luzera ekonomia abantaila handiak ditu.

Zein zerga tratamendu dute?

Autokontsumorako eta autokontsumo kolektiborako ereduak gehiago ezagutzen ditut, eta halako proiektuek kenkari fiskalak ere badituzte. Berez ez litzuzke zerga gehiago izan beharko. Oraingoz behintzat, ikusiko dugu hu-

rrengo urteetan zer gertatzen den, baina orain gehiago dira dirulaguntza eta kenkari fiskalak sortzen duen kostu ekonomikoa baino. Oraingo, behinik behin, gehiago da positibotik negatibotik baino. **Sakanan zein egoera dugu?**

Zorionez sakandarrek interesa dute, eta enpresen aldetik gero eta gehiago. Herritarren aldetik orain arte autokontsumorako interes gehiago egon da. Autokontsumo kolektiborako ere jaso ditugu laguntza eskariak. Pittaka-pittaka sakandarrak mugitzen ari dira. Energia egoera hau ez du inork konponduko, gutariko bakoitzak gure aletxo jarri behar dugu, erabateko edo besteko energia sorkuntza proiektuak bultzatu behar ditugu. Enpresak gogotsu daude eta 2023an lehen energia komunitatea sortuko dugu. Eta energia bulegoa izateak asko lagunduko luke era horretako proiektuak bulkatzen.

Autokontsumoa familia bakarrak diren etxeekin lotzen dugu. Eta etxebizitzak pisuak?

Orain arte bakarrak dauden etxebizitzetarako proiektu gehiago egin ditugu. Posible da blokeetan ere autokontsumoa egitea, dirulaguntzak daude eta aukera duten sakandarrak egitera animatzen ditugu. Oso sinplea da. Auzokideak bildu behar dira, guztiak ados egon behar dira autokontsumo hori egiteko. Baina horrek ez ditu behartzen auzokide guztiak ho-

rretan parte hartzera. Hamar auzokide baldin badaude eta bik nahiko balute autokontsumoa egin, elkarrekin egin dezakete, ez daukate hamarrek parte hartu beharrik. Baldintza bakarra da guztien baimena izatea etxebizitza horretan autokontsumoa egiteko. Beste aukera bat da, gutxiago ikusten den aukera bat, Sakanan ez dut ezagutzen, baina beste Nafarroako herri askotan gero eta gehiago lantzen ari den aukera da partekatutako autokontsumoa. Hori posible ez balitz, heldu den urtean udalek bultzada emanen dute eta ea energia komunitateak sortzeko aukera dagoen.

Sakanan komunitate horiek nondik ateratzen dute energia?

%99an eguzki plaka bitartez lortutako energia fotovoltaiko bidez egiten da autokontsumo hori.

"GARRANTZITSUENA DA HERRITARRAK AHALDUNTZEA ETA ENERGIAREN BURUJABE EGITEA"

"GURE HELBURUA DA HELDU DEN URTEAN SAKANAN ENERGIARI BURUZKO BULEGO BAT SORTZEA"

"Irurtzungo prestakuntza saiora edozein joan daitezke"

Sakanako Garapen Agentzian biomasa begiz jota duzue.

Sakanan hori ohitura da, ez gabiltza ezer berria asmatzen ari. Heldu den asteko prestakuntza saioa horrekin lotuta dago. Goieneko kooperatiba datorkigu asteazkenean, Irurtzungo Dinabiden emanen du saioa. Beraien dagoeneko martxan jarri duten proiektu baten berri emanen dute.

Zertan datza?

Gutariko bakoitzak aukera dugu etxerako sutarako loteak eskatu eta egiteko. Goienek proposatzen du hala nahi duten herritarrek elkartzea eta kooperatibak sortzea lote horiek kudeatzeko. Nor bere lotea kudeatu beharrean kooperatibak bere bazkideen loteak kudeatuko litzuzke. Banaka beharrean, modu antolatuan guztia egitea. Zeren lotea egiteko behar diren erremintak ez dituzten pertsona asko daude. Adinekoek halako lanak egitea zail dute. Edo halako lanetan esperientziarik ez duen gazte asko dago. Bazkideek etxerako sutarako egurra eskuratuko lukete basora joan gabe, erremintarik izan gabe, traktorea izan gabe...

Edozein joan daitezke jardunaldira?

Bai. Asteazkenean 10:00etatik 13:00etara izanen da, Irurtzungo Dinabiden. Herritarrek eta enpresek duten jakituriatik ikastea eta, horren bitartez, era honetako ereduak gurera ekartzea da helburua.

Izena eman behar da?

Bai. Internet bidez eman daitezke izena: <https://labur.eus/jYg0>. Bestela, Sakanako Garapen Agentziara hots egin dezakete, 647 864 239 telefono zenbakira. Edozein joan daitezke.

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Herritarrek eta udalak kooperatiba sortu dute egitasmoa aurrera eramateko. Teknikaz enpresa etxarriarra arduratuko da.

Garraldan lanean, nolaz?

Garraldan ere udalak bere energia kudeatzen zuen. 2008an edo 2009an sistema aldatu zen. Ordutik energia enpresa komertzialen bidez jasotzen dute, askoz garestiago. Energia burujabetza berreskuratu nahi dute eta energia komunitatea bulkatzen hasi ziren. Gurekin harremanetan jarri ziren Sakana Garapen Agentziaren bitartez. Zer egiten genuen azaldu genien eta beraiek zeukaten ideiarekin bat zetorrenez, hainbat batzar egin eta elkarrekin lanean hasi ginen.

Nola sortuko dute energia?

Helburua da %100eko energia autosufizientzia lortzea. Energia sortzeko hiru iturri erabiliko dituzte: fotovoltaikoa, hidroelektrikoa eta biomasa. Lehenengo fasean fotovoltaikoa jarriko da martxan, errazena eta merkeena delako. Baina hidroelektrikoa lortzeko proiektu txiki bat eta biomasa energia iturri izan daitezkeen ikertzen ari gara.

Eguzki plakak jartzeko azpiegitura handia behar da?

Teilatuak edo lurra behar dira. Garraldako teilatuen ezaugarriengatik ezin ditugu erabili eta larre batean jarriko dira plakak. Biomasarri dagokionez, mendi asko daukate eta Sakana herri askotako loteen sistema bera daukate mendia garbitzeko. Hala ere, mendia garbi izateko enpresei egur asko saldu behar diote. Ideia da eskola, kiroldegia, udaletxea eta hainbat eraikin berotzeko biomasa gal-darak jartzea.

Hidroelektrikorako, turbina bat?

Idea da ur biltegi zahar bat berreskuratzea, beheago berri bat egitea eta turbina hidroelektriko txiki bat jartzea. Lizarragan landu zen moduko zerbait egitea da asmoa: fotovoltaikoak sortzen duen soberazko argindarrarekin ura punpatu, gauean energia ekoiztu eta kontsumitzeko.

Zenbat denbora behar da energia komunitate bat sortzeko?

Bat edo bi urtez lan sendoa egin behar da. Garraldako kasuan, Esekik teknikoki argi zeukan ideia, baina juridikoki landu beharra zegoen. Eta Anelek, Navuinsak, Nafarroako Gobernu-ko energia trantsiziorako atalak, Garraldako Udalak, LKS next

"Helburua da %100eko energia autosufizientzia lortzea"

JON IRIGOIEN FRESNEDA ESEKIKO INGENIARITZA SAILEKO ARDURADUNA

Garraldargi energia komunitateko proiektu bat da, Garraldan, Aezkoan dagoena. Eta proiektu hori gauzatzeko buru belarri lanean dago Etxarri Aranazko Eseki enpresa



Jon Irigoien Fresneda. UTZITAKOA

Legalek eta Esekik lantaldea sortu genuen. 8-10 hilabetez lan gogorra egin genuen eta horren fruitua izan zen Idaeren dirulaguntza deialdira proiektua aurkeztea. Eta dirulaguntza jasotzea izan zen saria. Baina, daukagun esperientziarekin, energia komunitate berri bat sortzeko prozesu sozial bat egin beharra dago, ikerketa tekniko bat energia iturriak ikusi edo detektatzeko, eta burutzeko 1-2 urte behar dira.

Zer da prozesu soziala?

Herrian lantaldea sortzea jendea energia komunitatea zer den, zer aukera daukan eta nola sortu behar den azalduko duena. Prozesu sozialaren bitartez lantalde sendo bat lortzea da helburua. Guk daukagun esperientzia ikusita, udalen implikazio zuzena behar da. Horren arabera, herritarrek ere inplikatzeko dira eta lantaldea sortzen da. Baina udalak garrantzi handia dauka.

Eguzki plakak martxan, noizko?

2023 bukaeran martxan jartzea da helburua. Eta 2024 hasieran bukatzea.

Ordutik aurrera onurak.

Bai. Helburuetako bat da energiaren prezio egonkor bat lortzea.

"HELBURUETAKO BAT DA ENERGIAREN PREZIO EGONKOR BAT LORTZEA, 0,18 €/KWH EDO MERKEAGO"

Lantaldeak nahi eta bultzatu duten helburua da argindarra 0,18 euro kilowatt orduko edo merkeago lortzea (gaur egun 0,32 eta 0,5 artean dago). Egingen diren inbertsioak energia komunitatearenak izanen dira.

Zeinek kudeatuko du komunitatea?

Kooperatiba batek. Inbertsio handiak dira, baina Idaek %60 inguruko dirulaguntza eman du, eta Nafarroako Gobernuak jarri dituen mekanismoen bitartez komunitateak mailegua eskatu du. Instalazioa komunitatearena izanen da. Bilatu da herritarrek egin beharreko inbertsioa, sarrerako kuota, txikia izatea, helburua ahalik eta partaide gehien lortzea baita. Garraldarrek 1.000 euro jarriko dituzte eta udalak, kontsumoaren arabera, gehiago, 80.000 euro inguru jarri ditu. Gainontzeko finantziazio guztia dirulaguntza eta komunitateak eskatutako mailegu baten bitartez lortu da.

Inbertsioari buelta, zenbatean?

Kontsumoaren arabera aurretuko dute. Herritarrek 1.000 euroko inbertsioari bizpahiru urtetan emanen diote buelta. Energia komunitateak, berriz, 10-15 urtetan. Komunitateak kuoten bitartez izanen ditu diru sarrerak, kontsumitutako energiaren arabera. Horrekin eskatutako maileguari buelta emanen dio.

Beste energia komunitateen aldean, zerbaitean bereizten da Garraldakoa?

Ezberdintasun handiena energiaren kudeaketa da. Beste energia komunitateek edo partekatutako autokontsumokoek energia guztia sarera isurtzen dute, ekoiztutako energia horren guztiaren kudeaketaren ardurduna merkaturatzailea da. Garraldan energia burujabeak izanen dira. Energia askoz ere merkeagoa lortzen da, bitartekaririk ez dagoelako.

Noiztik dabil Eseki halakoetan?

Esekiko gerente Esteban Zeberio Lizarragari 2012an sortu zitzaion ideia. Nirekin harremanetan jarri zen. Unibertsitatean nengoen eta unibertsitateko proiektu bezala landu genuen ideia edo zirraborro bat, mahai gainean gelditu zena. E-Hiera proiektuaren bitartez, eta Sakana Garapen Agentziak bulkatuta, Lizarragako sarea 2017an sortu zen. Ideia pixkanaka burutzen hasi zen. Ondoren Garraldako Udala jarri zen gurekin harremanetan eta azaldutako prozesua jarri genuen martxan.



ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

Lurraren bularra

Joan den larunbatean, urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumezkoen Nazioarteko Eguna ospatu zen. Nazio Batuen Batzar Nagusiak lehen aldiz 2008an ezarri zuen eguna. 1996an, ordea, Via Campesina bezalako gizarte mugimenduak elikadura subiranotasunaz hitz egiten hasi ziren. Elikagaien subiranotasuna herriek duten politika eta estrategia iraunkorrek definitzeko eskubideari deritzo. Elikadura subiranotasunari buruzko eztabaidan sartu den beste hausnarketa garrantzitsu bat ekofeminismoa da. Ekofeminismoaren ustez, emakumeen mendekotasuna eta naturaren esplotazioa txanpon beraren bi aldeak dira.

Gotzone Sestorain Etxaldeko kidea da, elikadura burujabetzaren eta nekazaritza iraunkorraren mugimenduko. Duela gutxi egindako elkarrizketa batean (*Noticias de Navarra* 2022-10-14) adierazi du landa eremuko emakumeek desberdintasun hirukoitza jasaten dutela. Lehenik, landa eremuko emakume gisa izateagatik. Bigarrenik, nekazaritzaren mundua desberdintasun egoeran dagoelako.

EKOFEMINISMOAREN USTEZ, EMAKUMEEN MENDEKOTASUNA ETA NATURAREN ESLOTAZIOA TXANPON BERAREN BI ALDEAK DIRA

lurra, gure etorkizuna dokumentala proiektatuko da Ihabarren. Nekazariaren aldarrikapenak ezagutzeko aukera Guatemalan, Brasilen edo Hondurasen.

Egun horretarako honako leloa aukeratu dute: *Nafarroako landa eremuko erronka feminista izanen da, edo ez da izanen.* Nik artikulua hau Xabier Leteren haur kantaren omenez *Lurraren bularra* titulatu dut.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

Hirugarrenik, generoaren araberako aldearengatik.

Egun hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta dira Sakanan.

Emakumeen bizi kalitatea hobetzeko adierazpen bat aurkeztuko zaie udalei. Eta Helena Bengoetxea zuzendariaren *Gure*

HARA ZER DIEN

AHTaren salerosketa merkea

SAKANAKO TRENAREN LAGUNAK

Orain dela aste batzuk politikari AHTzaleen arteko norgehiagoka zekena eta Sakanaren salerosketa merkea ikusi eta entzun ahal izan dugu sakandarrok, aho bete hortz utzi gaituena.

Gure bailara suntsituko duen proiektuaz aritu dira, Urbasa-Andia eta Aralarren arteko natur guneari hesi berri bat jarri nahi diotela aipatu gabe; gure larre, soro eta beheko baso oparoenak AHT plataforma berri batekin okupatu nahi dituztela esan gabe eta izugarritzko dirutza publikoa eraikuntzako multinazionalen esku pribatuetara pasatu nahi

dutela betiko trena ahanzturan eta zahartze programatuan utziko duena ezkatutuz.

Gure politikari AHTzaleen eztabaida zalapartatsua ez dira aldaketa klimatikoari aurre egiteko egin beharreko urratsen inguruan edo energia krisiaren aurrean jendartea babesteko politika sozial ausartagoak sustatzearan inguruan, ez. Beraien arteko norgehiagoka "Europarako irteeraz" edota "Euskal Y-arekiko loturaz" harago, sakonean, alderdi bakoitzaren itzalean dauden eraikuntza enpresek eta haien "laguntzaileek" jasoko duten puskaren inguruan dira, Ezkiora eramanez gero, askoz

puska handiagoa hartuko dutela badakitelako, Aralarren lurzoru karstikoak hamaika arazo sortuko lituzkeela eta triskantzata ekologikoa alimalekoa izanen litzatekeela dakiten arren.

Honen guztiaren aurrean zuzenki galdekatzen dugu: Uxue Barkos, Geroa Sozialberdea alderdiko arduraduna, hau guztia ontzat ematen duzu?

Sakanan era duin eta osasuntsu batean bizi eta lan egin ahal izateko, natur gunegabe honek lehen sektorea, guzti bizi kalitatea eta turismoa pikutara bidaliko ez duten azpiegituren arriskua behin betikoz ezabatuz, zuzenean galdekatzen dugu: Javier Olló, Altsasuko Geroa Baiko alkatea, hau guztia ontzat ematen duzu?

GUTUNA

Hezkuntza Legearen Aurreproiektua: ez goaz bide onetik

AINHITZE BIZKARRALEGORRA BRAVO, MITXEL ELORTZA EXEA ETA IRUNE SOTO ALDALUR

Arnas Dezagun taldeko gurasook kezka jarraitzen dugu Hezkuntza Lege berriaren bilakaera. Gure seme-alabek euskara gehiago jakingo dutela dioten arren, nekez lortuko da hori euskara orduak gutxituta. Gaztelania eta ingeles orduak biderkatu egingo dira, eta euskarazko ikastorduek neurri berean gutxitu.

Egun D ereduak ikasleak euskalduntzeko dituen zailtasunak ikusita, nola pentsatzen dute gure agintariak konponbidea euskara orduak gutxituz iritsiko dela?

Murgiltzearen eta arnasguneen aipamenik ez dago legearen aurreproiektuan. Gure proposamenak eta eskariak helarazi genizkien arren, legearen aurreproiektuak ez du haur euskaldunen sakabanaketari, bazterketa eta estres linguistikoa amaitzeko inolako neurririk aipatzen. Hori gutxi ez, eta aurreproiektuak ez du zehazten ikasleen euskara maila bermatzen ez duten eskolek zer egin beharko duten euskara maila nahikoa ziurtatzeko.

Hitz politekin apaindu nahi izan duten legearen aurreproiektu honek zehaztasun gutxi dakartza, eta neurriak oso eskasak. Euskararekiko atxikimendua eta erabilera maldan behera doazen garai honetan, gure agintariak erdaren aldeko hautua egin dutela dirudi,

gaztelera irakas hizkuntza bilakatuta ordu gehiago eskainiz ikasle guztiak ondo baino hobeto jakin arren, eta (gutxienez) ingelese ere irakats hizkuntza bihurtuz, ingelesez emandako edukien kalitatearen kaltetan. Eredu «aniztuna» aurreproiektuan proposatu bezala orokortzen bada, ez dago aditua izan beharrik ikasleen euskarazko gaitasunak are beharago egingo duela ondorioztatzen.

Lege aurreproiektu honekin, haur etxetik euskaldunak egun baino are azkarrago erdaldunduko dira, eta haur etxetik erdaldumentzat, euskara are arrotzagoa eta deserosoagoa bihurtuko da. Kinka estu honetan, arduraz eta koherentziaz jokatzeko eskatu nahi diegu eragile eta alderdi euskaltzaleei. Ez goaz bide onetik.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZALEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Aizkibel eta Erregengurutza artean, Sebastian Fernandez de Lecetari buruzko informazio panela dago. ARTXIBOA

Mandazain Eguna, historia memoria

Mendetan ekonomiaren zutabe garrantzitsua izan ziren mandazainak oroitzeko eguna antolatu du Iturmendiko Udalak. Bernoako galtzada eta inguruko udalak gonbidatu ditu. Duela 200 urte herrian egin zen 105 gizonen fusilatzea gogoratuko dute

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI

Duela urtebete mustu zuten Bernoako galtzadako ibilbidea, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain artean 64 km-ko bide sarea osatzen duena. Garai bateko mandazainek ibilitako bideak bere baitan hartzen ditu ibilbide luze horrek, GR 323k. Imanol Arbizu Perpiña alkateak nabarmendu duenez, "mandazainek Iturmendin aparteko garrantzia izan zuten. Ameskoa aldetik etorri eta Ataun alderantz jotzen zuten, eta alderantziz". Iturmendiar ugari ere mandazainak izan ziren.

Gaineratu duenez, "Bernoako galtzada ibilbidea herritik pasatzen dela baliatuz mandazainen eguna ospatuko dugu". Horregatik, Ataun, Ameskoa, Etxarri Aranatz eta Burundako udalak gonbidatu dituzte. Mandazainak elkartu eta Burundako herrietan San Anton kofradiak sortu zituzten. Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingoak segitzen dute, eta bere kideak ere gonbidatuak izan dira. Ekitaldien ondoren,

Mandazain Egunak mahaiaren bueltan 65 bat pertsona elkartuko ditu. Ondoren musika emanaldia izanen da. Arbizuk jakinarazi duenez, "ez dakigu urtero, baina ideia da Mandazainen Eguna gehiagotan antolatzea".

200 urte atzera

Armada koronel bat azkenekoz Iturmendin 1959an egon zen. Jose Luis Saez de Herediaren *Diez fusiles te esperan* filmaren zati batek herria eszenatoki izan baitzuen. Larunbatean, atzera ere, garai bateko militarrek, koronela tartean, Iturmendira bueltatuko dira. Zehazki, Gasteizko gudua irudikatzen duten Gasteizko Bataila 1813 elkarteko zenbait kide etorriko baitira. Azken horien egitekoa Sebastian Fernandez de Leceta, *Dos Pelos*, koronelaren eta bere gudarostearen fusilamendua irudikatzea izanen da, bai gertatu zen tokian, beheko basoko Erregengurutza, bai herrian.

Arabako mendialdeko Ulibarri Haranako herritarrek ere gon-

bidatu dituzte, Fernandez de Leceta hangoa baitzen. Bestalde, gertaeren berri emanez Nicolas Arbizu Gabirondok liburuxka idatzi du. Elebitan argitaratu du udalak. Larunbatean hura eskuratzeko aukera izanen da.

Gertaera

Hiru urteko liberean (1820-1823) Fernandez de Lecetak Cadizko konstituzio liberala defendatu zuen. Haren kontra zeuden Fernando VII.aren aldeko erregezaileek armak hartu zituzten. Korolenaren gudarosteak Lizarran zeuden erregezaileei amore emanarazi zien. Fernandez de Lecetaren soldaduek 14 erregezaile hil zituzten Muniainen eta Jaitzen 1822ko

"EZ DAKIGU URTERO, BAINA IDEIA DA MANDAZAINEN EGUNA GEHIAGOTAN ANTOLATZEA"

Egitaraua

- **09:30** Herrietako bisitari eta ordezkariak harrera, plazan.
- **10:15** Topaketa eta fusilamenduen birsortzea Gasteizko Bataila 1813 elkartearen eskutik, Erregengurutza.
- **11:30** Fusilamenduen birsortzea, plazan.
- **12:30** Mandazainen kofradien eta gonbidatutako udalen ordezkarien aurkezpena, plazan. Fusilamenduari buruzko liburuxkaren banaketa eta solasaldia.
- **13:00** Auzatea, plazan.
- **14:00** Ajoarrieroko herri bazkaria.
- **16:00** Bazkalosteko musika Lau Haizetara taldearekin.



Arantza Galarza Lezea sariarekin.

Pintxo taberna onenaren saria: Bodegon Sarria

Jabe altsasuarrak ditu Iruñeko Alde Zaharreko tabernak. Aitortza igandean jaso zuen

ALTSASU

Euskal Herriko Pintxo Txapelketa Bilbon jokatu da asteburuan. Banatutako sarietako bat 2022ko Pintxo Taberna Onenarena izan da, Iruñeko Estafeta kalean dagoen Bodegon Sarriak jaso duena. Antolakuntzak sari horren bidez Euskal Herriko "gastronomiaren elementu bereizgarri eta identifikatzaile gisa pintxo-barren ahalegina eta esentzia, dinamismoa eta sormena hobekien ordezkatzeko dituen establezimenduari ematen zaion errekonozimendua da". Epailen iritziz, Bodegon Sarriak baldintza horiek betetzeaz aparte, "ostalaritzan sukaldaritzako tradizioaren erreferentzia da, eta lehen mailako turismo erakargarria".

Julian eta Arantza Galarza Lezeak jaso zuten saria igandean. Biek ere sarietatik esker ona adierazi zuten. Esker ona azaldu zioten 13 kideko lantaldeari ere. "Gurasoei aitortza. Haiek gabe ez geundek hemen", esan zuen Julianek. Izan ere, 54 urte aritu ziren ostalaritzan lanean. Arantzak gaineratu duenez, "zuengandik sari hau jasotzea guretako ohorea da". Haien guraso Cristobalek eta M^a Cruzek 1968tik Altsasun hainbat ostalaritza establezimendu kudeatu ondoren, Iruñera salto egin zuten 1986an.



Plaza itxuraldatzeko lanak egiten ari dira.

Vicente Argomaniz plaza berritzen ari dira

Plazako zorua altura berean jarriko dute. Lanak hilabete honetan despedituko dira

OLATZAGUTIA

Herriaren erdigunean dagoen Vicente Argomaniz plaza itxuraldatzea erabaki zuten olatziarrek 2019ko parte hartze aurrekontuen bidez. Olatzagutiko Udalak lanak eman eta hilaren 10ean hasi ziren plaza itxuraldatzeko lanak. Plazaren erdian zehar zuhaitzak eta iturria daude. Haiek inguratzen zituen landarezko hesi bat zegoen. Hura eta haren barruan zegoen zoladura kendu dute langileek. Joseba Vizuete Askargorta alkateak azaldu duenez, "plazako zorua maila berean jarriko dute eta gero asfaltoa zabalduko dute. Plaza 'hutsik' geldituko da eta edozein ekintza hartzeko prest". Alkateak azaldu duenez, lanek 27.000 euroko aurrekontua dute. Olatzagutiko alkateak gaineratu duenez, "Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planeko dirulaguntzen deialdian plazan galtzadarria

jartzeko proiektua aurkeztu dugu".

Alkateak jakinarazi duenez, aurtengo parte hartze aurrekontuen deialdia azaroan egingen dute. Joan den urtean olatziarrek erabaki zuten udal pilotalekuko sarrera aldatu eta erabiltzaileek frontoira txartela edo hatz markarekin sartzeko aukera izatea. Gaur egun udal pilotalekua itxita dago. Hura erabili nahi dutenek udaletxetik pasa behar dute goizez, giltza eskatu eta izena eta telefono zenbakia ematen dituzte. Beraien aldia bukatzen dutenean giltza udaletxeko postontzian uzten dute, edo zuzenean udaletxera bueltatzen dute hurrengo egunean. "Jendea kezkatzen da frontoia itxita dagoelako. Pandemiarekin lehen bezala irekitzea ez genuen egoki ikusten, gaur jendea sar zitekeelako. Horregatik ez dugu ireki", azaldu du Vizuetek.

Sakana Sarietarako hautagaiak proposatzera

Helburua da aitortza egitea eragin sozial, ingurumeneko edo ekonomiko positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektibo bati, irabazi asmoa izan edo ez. Hautagai proposamenak hilaren 30era arte egin daitezke www.sakanagaratzen.com bidez

SAKANA

Hirugarren urtez Sakana Sariak banatuko dira. Sakanako Sozioekonomia Behatokiak (SSB) antolatu eta deitu du sariketa. Sariketaren bidez ibarrean garatu diren ekimenak ezagutarazi eta haiei aitortza publikoa egin nahi die. Sakandarrek proposaturiko ekimen guztien artean, bi sari banatuko dira. Bata Sakana sari nagusia da. Jasotako proposamen guztien artean ordezkari zabal batek osatutako epaimahaiak aukeratuko du sari hori nori eman. Bestea, Sakana aipamen berezia, sakandarren boto bidez aukeraturiko da. HAutagaitzak jasotzeko epea despeditu ondoren, haien berri Sakanako Garapen Agentziaren (SGA) www.sakanagaratzen.com webguneak emanen du eta han botoa emateko aukera izanen da.

Sari nagusia banatzerakoan, SSBk hiru balio izanen ditu kontuan egitasmo kolektiboak aitortzeko. Batetik, dinamismoa eta erresilientzia gaitasuna oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Bestetik, aniztasuna aberastasun kolektibo gisa ikusia. Eta, azkenik, elkartasuna eta onura komuna bilatzea komunitatearen beharrak lehentsiz. Horretarako funtsezko elementuak dira komunitatearen



Arakilgo hazien sareak eta Biak Bat elkarteak saritu zituzten joan den urtean.

lana (auzolana) eta herri ondasunak (komunala). SSBko ordezkariak azaldu dutenez, "pasatako egoerek erakutsi digute, Sakanan gure gureak ditugun balio horiek inoiz baino beharrezkoago zaizkigu etorkizun partekatu bat berreraikitzeke".

Bestalde, sari banaketa ekitaldia sakandar guztiei irekia izanen da. Joan nahi dutenek aurretik izena eman beharko da SGAREN webgunearen bidez, 647 864 239 telefonora deituz edo info@sakanagaratzen.com helbidera posta bat bidaliz.

Egutegia

- **Lastailak 30** Proposamenak jasotzeko epea itxiko da.
- **Lastailak 31** Proposamenak webgunean argitaratu eta bozketa publikoa abiatuko da.
- **Azaroak 8** Bozkatzeko epea despedituko da.
- **Azaroak 10** Sari banaketa ekitaldia.

**EMAKUME,
EZ ZARA JOKOAGATIK
ARAZOAK GARATU
DITUEN BAKARRA**

Leguntzua

Nafarroako
GobernuaGobierno
de Navarra

3035

Instituto
Navarro
para la IgualdadPartenaria
Desarrolladora
SocialEuzko
GobernuaAsociación
ARALAR
de Mujeres de Navarra
nabarroak laguntzeko prest

DEI GAITZAZU

665802545



ZU LAGUNTZEKO PREST



0 km
SAKANAKO
GIDA

**ILEAPAINDEGIA
SAKANAN?**

17

KLIK BAKARREAN

<https://guaixe.eus/gida/>

Zuk ere agertu nahi baduzu: 948 564 275 | 661 523 245 | publi@guaixe.eus



Uholdeak Bakaikun. ARTXIBOA

Uholdeen kalteei aurre egiteko dirulaguntza

Arakil, Irañeta, Uharte Arakil, Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Udalek 969,697,13 euro jasoko dituzte Estatutik. Laguntzaren %57,47 Uharte Arakilgo Udalak jasoko du, 557.274,99 euro

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Abenduaren 10ean uholdeak izan ziren ibarrean. Euriteek eta ibai eta erreken emari handiek kalteak eragin zituzten. Hori dela eta, Espainiako Gobernuak bederatzik erkidego, Nafarroa barne, Gizarte Babeseko larrialdi bategatik larriki erasandako eremu izendatu zituen. Dirulaguntzak emateko epea 26 hilabetetik 9ra laburtu ondoren, Estatuak 24.474.452,35 euro eman dizkie bederatzik erkidegoetako udalei. Horietako 5.914.355,66 euro udal nafarrek jasoko dute (%24,16). Nafarroako kopuru horren %9,42 jasoko dute Sakanako hamar udalek.

Dirulaguntza jasota ere, udalek lanak egiteko dirua aurreratu behar dute eta haiek despedituta daudenean jasoko dute laguntza. Horrek udal arduradunak diru kontuekin oreka bilatzera behartzen ditu. Gainera, foru administrazioaren atean ere jo dute batzuek, lan zehatzetarako beste laguntza batzuk lortzeko asmoz.

Herriz herri

Arakilgo Udalak Izurdiagara bideratuko du jasotako dirulaguntza. Arakil eta Larraun ubeldeen herriaren mendebaldean bat egiten dute, eta uholdeak

izaten direnean Izurdiagako San Joan auzoari zuzenean eragiten dio. Abenduko uholdeek hondatutako hiru bide konponduko ditu udalak: Txopordi, Arranbide eta Zapardi. Aurreneko bi bideak porlanezkoak egingen dira.

Irañetako Udalak ibai gaineko zubiaren paretan uholdeak sortutako kalteak konponduko ditu. Baita gaztainadirako bidean euriteak eragindakoak ere.

Uharte Arakilgo Udalak 25 lanetarako dirulaguntza jaso du, 557.274,99 euro. Udalak lan horiek egiteko 1.114.738,01 euroko inbertsioa egitea aurreikusten du. Lanen artean hiru zubiren konponteta dago: Arakil gaineko Zubiaurre eta Zubialde eta Iberaldea kaleko zubi zaharra. Udal eraikinetan dauden hezetan ere kendu nahi ditu udalak: eskoletakoak eta osasun kontsultategikoak. Mugerrirerka San Joan kalearen azpitik pasatzen da, eta lurperatutako zatia garbitu eta junturak konpondu nahi ditu udalak. Bestalde, Zubialde aisialdi gunea egokitu eta Itsesian dauden jolas eremua eta futbol zelaia egokitu eta konpondu nahi ditu. Azkenik, udalak honako bideak konpondu nahi ditu: Amurgin, Azekipekoa, Berastegikoa, Errekazar, Iberaskoa, San Bartolomekoa, Ardantzarretakoa,

Bizkaingangoa, Auzelea-Katizanokoa, Itxesi-Kamioxa-Berroa, Ostrakakoa, Sargaizekoa, Telleriakoa, Zerradoakoa.

Arbizuko Udalak jasotako dirulaguntzarekin Zizkerte eta Bidaul arteko dermioko bidea konponduko du. Ergoienako Udalak dirulaguntza eskatu du, ondoren kontzejuei dirua emateko. Abenduko euriteek eragindako kalteak konpontzea premiazkoa zenez, kontzejuek dagoeneko lanak eginak dituzte. Lizarragan urak lurra mugitu zuen ur biltegitik Motxaleren errebueltara arte, eta hura konpondu zuten. Unanun Lezizako pista konpontzeko lanak egin

zituzten, eta Dorraon San Pedro-rako, Gaztañei, Alkarte eta Elizbide pistak konpondu zituzten.

Etxarri Aranazko Udalak Oporo, Ustille eta Kanpozelei-Baxateko bideak konponduko ditu. Azken horri dagokionez, udalak uholdeak izan diren bakoitzean konpondu du. Orain hura asfaltatuko du. Ustilleko bidea 2021ean konpondu zuen udalak, baina erabat hondatuta gelditu zen. Berritu eta euri urak ibaira bideratzeko hodia jarriko da. Oporoko bidean, berriz, ezpondak eta bidea konponduko ditu. Iturmendiko Udalak oraindik zehaztu gabe du zein lan egingen dituen.

Altsasuko Udalak zazpi bide konponduko ditu: Erreguarte, Dermau, Beikolar, Larrunza, Isasia, Izarte eta Torretxiki. Guztietan ezpondak garbitu eta zorua berrituko dira. Bestelako lanak ere egingen dira, esaterako, bide bazterreko sasiak kendu edo elementuren bat konpondu edo ordezkatu. Lan horietaz aparte, ibaiaren ibilguan erosioa izan den ertzetan harri lubetak egingen ditu udalak: Zangituko bidearen

ondoan, ibaiaren bi aldetan; Ondarria industrialdean, espaloitik gertuen dagoen ertzean eta Beheko Bentan eraikinetatik gertuen dagoen ubelde ertzean. Azken horretan, gainera, ibilgura eroritako zuhaitzak kenduko dira. Isasia industrialdean, berriz, ezpondak garbitu eta konponduko dira, lehen bezala uzteko. Aldi berean, Errotatzikiko hustubidean ibilguan erosiaturatutako zatia eta hustubide bera konponduko dira.

Olatzagutiko Udalak jasotako dirulaguntzaz aparte Nafarroako Gobernuaren atean ere jo du. Ahalik eta laguntza handiena jaso nahi dute urak eragindako kalteei aurre egiteko. Horiek gehienbat dermioko bideetan izan ziren. Hala ere, lehentasunak orain zehaztuko ditu udalak.

Ziordiko Udalak, batetik, txipudiko eta gazteluko parkeetan urak sortutako kalteak konpontzera bideratuko du dirulaguntza. Eta, bestetik, euri jasek mendirako hainbat bide hondatu zituzten, eta horiek konponduko ditu orain.

Estatuak emandako dirulaguntzak

Udala	Aurrekontua	Dirulaguntza
Arakil	47.344,54	23.672,27
Irañeta	42.375,31	21.187,65
Uharte Arakil	1.114.738,01	557.274,99
Arbizu	17.647,11	8.823,55
Ergoiena	44.763,11	21.856,16
Etxarri Aranatz	168.007,25	81.691,59
Iturmendi	25.424,79	12.362,51
Altsasu	273.255,11	136.627,55
Olatzagutia	104.648,65	50.884,20
Ziordia	121.063,52	55.316,66
Guztira	1.959.267,40	969.697,13

Gazte Kultura Bona Correos bulegoetan eskuratu daiteke

2004an jaiotakoek kulturaz gozatzeko 400 euroko bonua dute eskura. Irurtzun eta Altsasun eskuratu dezakete

SAKANA

Gazteen Kultura Bona eskuratzeko dutenek 400 euro kulturaren inbertitzeko aukera dute, horrela banatuta: 100 euro produktu fisikoendako (liburuak, prentsa edo diskoak); 100 euro produktu digitalendako (prentsa digitala, podcasta edo lineako bideojokoak) eta 200 euro arte eszenikoetarako (antzerkia, opera, zinema, dantza, museoak).

Bonua Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak sustatu du. "Gazteek beren adin nagusitasuna kulturaren eskutik ospatzea nahi dugu. Ikusle berriak nahi ditugu, irakurle berriak, kultura gose handiko belaunaldiak nahi ditugu", nabarmendu zuen ministroak aurkezpenean. Bonuak berez Correosek emanen duen aurreordainketako txartel batekin funtzionatuko du, eta txartel hori birtualki eduki ahal izanen dute onuradunek mugikorrean, edo fisikoki. Kasu horretan, Espainiako edozein posta bulegotan jaso ahal izanen da. Txartel horrekin esperientzia eta produktu kulturalaz gozatu ahal izanen dute gazteek. Aktibatzen direnetik, onuradunek urtebete dute 400 euroak gastatzeko.

Eskuratzeko

Internet bidez eskatzeko aukera dago www.bonoculturajoven.gob.es webgunearen bidez. Kasu horretan, eskatzaileek ziurtagiri digitala izan behar dute, alde aurretik Diruaren eta Zerga ziguilaren Fabrikaren eska daitekeena. Oraindik ez badute, Cl@ve autentifikazio sistema ere erabil dezakete.

Kultura eta Kirol Ministerioak eskabideak aurkeztea bizkortzeko eta errazteko beste erabaki bat hartu du: tramitazioa postetxeetan egin ahal izatea. Nafarroako 50 postetxeetan eska daiteke bonua, tartean dira Irurtzongoa eta Altsasukoa. Horretarako, onuradun potentzialak www.bonoculturajoven.gob.es webgunean sartu beharko dira. Erregistrora sartzean, Bonua Correosen bidez eskatzeko aukera izanen dute, Correoseko edozein bulegotan bete, sinatu, inprimatu eta aurkeztu beharko duten formulario baten bidez, nortasun agiriarekin batera. Formularioa aurkeztu eta datu pertsonalak erkatu ondoren, ministerioari helaraziko dizkio eskaerak, ebatz ditzan. Hilaren 31ra arte eska daiteke.

DUELA 25 URTE...



Lizarragatik Nafarroa Oinezera

Lizarragako gaztetxeak, bigarren urtez, Tafallako Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu zuen. Bietan autobusa ia bete egin zen. Autoetan joan edo beste herri bateko autobusean izena eman. Bi aukera horiek zituzten lizerratarrek ordura arte, eta horrek Nafarroako ikastolen festara ez joatea zekarren. Zeren beste herriren bateko autobusean izena emanda ere, hara joateko autoa behar zen, autobusari Lizarragaraino igotzea "beti gaizki etortzen baitzaitzaion".

"Hezkuntzak eduki asko galdu du azken urteetan"

JOKIN BEREZIARTU AIESTARAN IKASLE ABERTZALEAK-EKO KIDEA

DBHko ikasleak greba egitera deitu ditu Ikasle Abertzaleak-ek. Ostegunean, 12:00etan, manifestazioa abiatuko da Iruñeko Sarasate pasealekutik

SAKANA

PPko Wert ministroak sustatutako LOMCE Hezkuntza legeak nahikoa eztabaida piztu zuen 2013an eta hurrengoetan. PSOE gobernua zela, 2020an, LOMLOE onartu zen eta hura da gaur egun indarrean dagoena. Eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Hezkuntza Plana lantzen ari dira. Ikasle Abertzaleak-ek erreformekin aldaketak nabari izan ditu eta, horregatik, deitu ditu ikasleak grebara.

Ikastetxeetan nola islatzen da hori guztia? Nabaritzen duzue?

Guk hiru puntu ikusi ditugu. Lehendabizikoa Hezkuntzaren desegitea. Eduki asko galdu du Hezkuntzak azken urteetan. Ikasleek benetan ikas dezaten ikaskuntza erreala, kritikoa alde batera utzi da. Esaterako, Filosofia ikasgaia kendu dute. Hezkuntza zentratu da gehienbat ikasteko moduan eta memorizazioan eta abar. Ikasturtean lantzen den eduki hori ez da nahikoa ikasturtea aurrera ateratzeko, eta kurtsoa aprobatzeko klase partikularrak dira tresna.

Hori guztia testuinguruan kokatzen duzue?

Hezkuntzak sistema kapitalistaren baitan betetzen duen funtzioa da etorkizuneko langileria prestatzea gerora izanen dituen baldintza horietarako. Testuinguru ilun eta kaxkar honetan miseria egoera baterako prestatzera eta kritikarako gaitasuna guztiz galtzea. Bakarrik azterketa baterako memorizatzea prestatu, eta bi hilabete barru gauza bera, eta abar. Miseria egoera hori barneratuta izatea eta ez izatea kritikoa egoerarekin.

Hezkuntzan ofentsiba kapitalista baten testuinguruan kokatzen duzue hau guztia, ezta?

Hala da, bai. Testuinguru zail honetan Hezkuntzan esku hartzea izaten ari da, esaterako, enpresena guztiz salatzen dugu. EAEn Googlerekin eta Microsoft en-



Jokin Bereziartu Aiestaran, grebara deitzen duen kartela atzean duela.

"IKASLEAK BENETAN BESTE HEZKUNTZA BATEN ALDEKO APUSTUA EGITERA ANIMATZEN DITUGU"

presekin sinatu dira akordioak. Enpresei Hezkuntzaren parte sentitzea interesatzen zaie, ikusten dutelako etorkizuneko langileengan, egungo ikasleak, eragin dezaketela. Digitalizazio inbertsio horiekin, esaterako, lortzen dute espezializatutako ikasle batzuk lan mundura bideratzea. Edo prezioen igoera. Geror eta zailagoa dela familia askorendako ikasturte bat aurrera eramatea bai Bigarren Hezkuntzan, bai unibertsitatean. Hezkuntza oso erluzionatuta dago familia bakoitzak dituen ekonomia gaitasunekin. Horiek oso modu bortitz batean eragiten dutela errendimendu akademikoan; geror eta ekonomia gaitasun txikiagoak izan, orduan eta zailtasun gehiago ikasturte bat ateratzeko, irakasle pertsonalak **ikasle Abertzaleak-ek zer-nolako hezkuntza sistema nahiko luke?**

Hezkuntza sistema sozialista bat aldarrikatzen dugu; doakoa, kalitatezkoa eta unibertsala. Benetan ikasle langileen mesedetara edo interesetara zuzenduta egongo den Hezkuntza. Eta ez enpresa handietara zuzendutakoa, zeinetan enpresa helburua litzatekeen etorkizun beltz horretarako heziko lirakeen langileak. Hau da, miseria egoera batera prestatzea eta asimilatzea.

Zergatik deitu dituzte grebara ikasleak?

Hezkuntza egoera oso zailan ikusten dugu. Erreformatik proposatzen dira, baina ikasleriaren interesen alde egitetik urrun daude. Ikasleriak erreforma horiei planto egitea proposatzen dugu. Gure interesetara egonen den Hezkuntza baten alde egitea deitzen dugu, eta gaurdanik proposamena eraikitzen hastera. Horregatik, ahal den heinean, mobilizatzea deia egin dugu.

Nola islatuko da greba hori Sakanan? Saiatuko gara hemen ditugun ikastetxeetan ahalik eta ikasle gehienek grebarekin bat egiten saiatuko gara. Iruñeko manifestaziora joateko autobusa antolatu dugu. Ohiko bideen bidez eman daiteke izena.

Irurtzunen bigarren eskuko arropa jasotzen hasiko dira

Hilabeteko lehen azoka egunean egingen dute bilketa, 11:00etatik 13:00etara, Arakilgo Udalaren arkupean

IRURTZUN

Itxipuru taldeak eta Sakanako Mankomunitatearen kulturartekotasun zerbitzuak, Anitzartean-ek, arropa bilketa antolatuta dute Irurtzango eta Arakilgo udalen laguntzarekin. Hilean behin, azoka egunean, jasoko dute jendeak eramandako arropa, beti ere, egoera onean bada. Begoña Zestau Baraibar teknikariak esan duenez, "jasotako arropa hurrengo egunean Elkarrri Laguntzak Errotxapean duen egoitzara eramango da". Zestauk azaldu duenez, "elkarri

hori 2008ko krisiak ekarritako etxegabetzeen ondorioz sortu zen, eta egoera latz horretatik ateratako 49 boluntarioek kudeatzen dute. Elkartasuna praktikatzuz, indargune kolektiboak baliatu nahi dituzte, banako ahuleziei aurre egiteko".

Elkarri Laguntza elkarteak "pobrezia eta bazterkerien aurrean gizartea sentsibilizatu nahi du, ezertxo ere ez dutenen beldurra, estutasun eta jakineza ikustarazteko". Gaineratu duenez, "familia eta pertsonen gizarteratzea eta ahalduz lantzen



Itxipuruk frontoian antolatutako azokan arropa begira. ARTXIBOA

dute ere. Horretarako, jendea bakarrik senti ez dadin eta haien bizi proiektuen alde borroka dezaten ahalegintzen dira, pertsonen bizi dituzten bazterkeria egoerei nolabaiteko irtenbideak ematen", azaldu du Zestauk. Ho-

rrekin batera, "kalitatezko politika publikoak aldarrikatu eta bultzatu nahi ditu elkarteak".

Helburu horiek lortzeko elkarteak jakiak, barazkiak eta frutak banatzen ditu Errotxapean alokaturik duten zentruan. Aldi

berean, familia guraso bakarrei arreta eta informazioa eskaintzen diete, esaterako: oinarritzko errenta, alokairua, erroldatzea, osasungintza, erregularizazioa, atzerriartasun kontuetan aholkularitza. Bestetik, migratutako gazteendako arreta zerbitzua du, eta haren baitan daude prestakuntza, kirol jarduera, hizkuntza trebakuntza, lan bilaketa eta beste. Premia dutenei ere arropa edota joku eta jostailuak banatzen dizkiete.

Elkarrearen jardunaren eta Irurtzango arropa bilketaren berri emateko elkarteak kideek hitzaldia emanen dute heldu den ostiralean, 19:00etan, Pikuxar elkartearen. Horrekin batera, izen bereko tabernan *Logela bat ez da bizileku bat* argazki erakusketa mustuko da heldu den ostiralean.

Laborantza iraunkorra helburu duen ikastaroa

Abeltzainak eta herritarrak bertako baliabideen erabileran trebatzeko ikastaroa izanen da heldu den ostegun eta ostiralean, 09:00etatik 13:00etara, Sakanako garapen zentroan. Ikastaroan teoria eta praktika uztartuko dira

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) Larreen eta bertako baliabideen aprobetxamendua laborantza iraunkor baterako ikastaroa antolatu du. SGako elikadura teknikari Nerea Viana Zugadik azaldu duenez, "jardunaldi horien helburua abeltzainei edota herritarrei bertako baliabideen erabilerari buruzko ezagutza eta tresnak ematea da". Bertako baliabideak "zorua, larreak, eta abar" direla adierazi du Vianak. Teknikariak zehaztu duenez, helburua da "abeltzainen ekoizpenean parte hartzen duten kanpoko elementuen multzoa gutxitzea. Horrela, abeltzainek ustiatzietan aurrezteko eta kanpo dependentzia gutxitzeko". Ikastaroan ikasitakoarekin "aurrean ditugun erronkei hobeto erantzuteko" aukera izanen dutela uste du Vianak. Eta erronka horiek zein diren ere zehaztu ditu: klima aldaketa, lehorreak, suteak, lurraren agortzea, erre-



Ardia Andiako baltsatik edaten. ARTXIBOA

gaien eta energiaren garestitzea, prezioen ezegonkortasuna...

Osteguneko saioak *Lurzoru biziaren garrantzia* izenburua du. Vianak argitu duenez, egun horretan, "gure lurzoruak zaintzearen eta mantentzearen garrantzia

eta bioingarriez ikasteko aukera izanen da. Horrekin batera, key-line diseinu hidrológicoaren bidez lurzorua higadura nola ekin ikasiko dugu". Aldi berean, "emankortasunaren hainbat parametro ezagutzeko landa-praktikak egingen dira. Besteak beste, pH-a, kareharrizko eduki aktiboa, egitura, jarduera mikrobiologikoa, burdina, eta abar ikasteko aukera izanen da. Bukatzeko, lurzoruaren dauden landareak aztertuko dira, eta horiek zer adierazten duten ikasi".

Ostiraleko saioak *Birsortze maneia* izenburua du eta hartan "ekoizpena dibertsifikatzeko aukera ematen diguten nekazaritza eta baso sistemak aztertuko dira. Horrekin batera, "nekazaritza sistema estentsibo eta biointensiboak, birsorkuntzako abeltzaintza maneia motak eta ongarritze zikloen ixtea ikasiko dira". Arruazuko angioa bisitatuko dute, "berreskurapena eta hainbat maneia ezagutzeko".

berria ekitaldiak

Pasadena

KONTZERTUA

Azaroak 5

Larunbata • 19:30

Altsasu

lortia kulturagunea

Sarrerak:

- Aurretik **12€** (BERRIAlagunek **10€**)
- Egunean, **14€** (BERRIAlagunek **12€** - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

- BERRIAn: Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo **943-30 43 45** telefonora deituz.
- lortia kulturagunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Euskaraz lasai egiteko, arigunea

Aurreko Euskaraldiaren berritasuna ariguneak izan ziren. Aurten berriro osatuko dira. Entitateek hilaren 31ra arteko epea dute arigune izena emateko. Horretarako, 'www.euskaraldia.eus' webgunean sar daitezke, edo herriko Euskaraldia batzordearekin harremanetan jarri



Ereira eta Gotzone Garziandia Imaz Altsasuko Zumalakarregi plazako Amaia okindegian.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia. Parte hartzen duten herritarrek bi rolen artean aukeratu dezakete: ahobizi eta belarriprest. Hirugarren rol bat ere badago, arigune. Azken horiek euskaraz lasai hizketatzeko guneak dira, eta belarriprestez eta ahobiziz osatuta daude.

Bi arigune mota daude. Alde batetik, pertsona taldeek osatutakoak, eguneroko harremana dutenak, esate baterako, kultur, kirol, gizarte taldeak. Arigune horietako kide guztiek euskara ulertzen dute, eta elkarrekin ariketa egitea erabaki dute, ahobizi eta belarriprest gisa. Beste aldetik, entitateak eta herritarrak harremanetan egoteko espazioetan eta dinamiketan sortzen dira: harrera guneak, salerosketa

puntuak, eta abar. Horietan herritarrei harrera egiten dieten ahobizi eta belarriprestak daude, aldiz bat gutxienez. Badira bi motetako ezaugarriak dituzten ariguneak ere, esaterako, bi lan-gite dituen denda bat.

Esperientziak

Azaroaren 18tik eta abenduaren 2ra arigune izanen diren lau entitatek azaldu dute zergatik izanen diren arigune. Irurtzungo Albaitaritzan enpresan lan egiten du Blanki Letona Jauregik. Berak azaldu duenez, "Albaitaritzan euskaldun sentitzen gara eta gure 40 urteko ibilbidean, gure hizkuntza indartzearen aldeko hautua egin dugu, gure ingurunean eta baita enpresaren barnean ere". Letonak argitu duenez, "sentimendu hori egonkortzeko eta gure euskarazko zerbitzua hobetze al-

dera, arigune izatea erabaki dugu".

Lakuntzako Elai Alai dantza taldeko Leire Sagarzazu Ibargurenek azaldu duenez, "aurtengo Euskaraldia iragarri zenean, lehenengo momentutik arigune izatea erabaki genuen". Sagarzazuk jakinarazi duenez, taldekideei "garrantzitsua iruditzen zaigu euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea".

Urdiango farmazian lanean opatu dugu Urtzi Urionabarrenetxea Zarrabe botikaria. Atzerrian bizi ondoren, apiriletik da farmaziaren jabe eta, beraz, estreinakoz izanen da arigune. Berak esan duenez, farmazia arigune bihurtzeko "hainbat arrazoi" daude. "Alde batetik, botikak egunerokotasunean, herritar askori funtsezko zerbitzuak eskaintzen dizkiolako, eta horiek euskaraz egin ahal izatea ezinbestekoa da". Urionabarrenetxeak gaineratu duenez, "dendako hain garrantzitsua den osasun arloan, tamalez, egungo euskararen egoera eta erabilera normaltasun osotik urruti dago".

Euskaraldian arigune gisa estreinako aldia dute ere Ereira eta Gotzone Garziandia Imaz ahizpek.

Altsasuko Zumalakarregi plazan dagoen Amaia okindegian lan egiten dute. "Arigune gara jendea euskaraz egitera animatzeko. Norbaitek euskaraz dakiela baldin badakigu euskaraz erantzuten diogu". Argitu dute bezero gehienak erdaldunak direla.

Zer eman dizue arigune izateak?

Okindegian arigune irudia izanda euskaldunak beste jarrera batekin sartzeari espero dute ahizpek. "Jendeak ezagutzea eta etortzea". Etxarriarrak dira eta, esan dutenez, herrikoek ez dakite non



Urtzi Urionabarrenetxea Zarrabe, Urdiango botikaria. UTZITAKOIA

lan egiten duten. Zumalakarregi plazan asteazkeneko azoka izaten da, arropen postuak. Horrek herritako jendea erakartzen du, ondorioz, "hasieran harritzen baziren ere, orain askok badakite okindegian euskaraz hitz egin dezaketela. Eta herritakoren batekin hizketan gaudela, gu euskaraz entzun eta ondoren euskaraz hitz egin digunik ere bada".

Farmaziarekin sei hilabete dararama Urionabarrenetxea eta arigune berria da. Botikariak azaldu duenez, Urdiainen eta Sakanan "berria naizenez, pazientearekin lehendabiziko kontaktua euskaraz egiteak asko

baldintzatuko du ondoren gure artean sortuko den harreman eta erabilitako hizkuntzan. Horregatik, hasiera-hasieratik, zuzendu eta hizketatu naiz euskaraz".

Dantza taldeko Sagarzazuk esan duenez, "arigune gisa izena ematean gure hitza ematen dugu euskara erabiliko dugula, eta taldean nahi duen horrek euskaraz hitz egitea bermatzen dugu. Modu eroso batean eta segurtasunez egin dezaten". Letonak esan duenez, "arigune izateak euskaraz komunikatzeko dugun ahalmenaz ohartarazteko balio izan digu. Baita bakoitzak ahal duen neurrian euskarari ekarri



Blanki Letona Jauregi Albaitaritzakoa. UTZITAKOIA

ahal dionaz jabetu eta hortaz gozatzeko ere". Albaitaritzaren enpresakoak gaineratu duenez, "hemendik goiti gure hizkuntza paisaia euskalduna bermatzeko erronka hartu dugu eta, horretarako, laguntza eskatu dugu".

Zer jaso duzue?

Albaitaritzaren enpresako Letonak azaldu duenez, "gure gogo eta ilusio guzia jarri dugu Euskaraldian, gure lan esparruan euskararekin dugun harremanaz gozatzeko". Dantza irakaslearen esanetan, "arigune izateak euskararen erabilera areagotzea dakar". Sagarzazuk jakinarazi duenez, "Elai Alai dantza taldeak beti eman dion garrantzia hori plazaratzeko" bidea da arigune izatea. Dantza eskolak horregatik direla euskaraz nabarmendu du. Gainera, Elai Alai dantza taldeak "herritarrek euskaraz egiteko aukera" ematen duela azpimarratu du. Sagarzazuk

Izen ematea

Euskaraldia zer den jakin ondoren, entitate batek arigune egitea erabakitzen badu, lehenik bere kideen euskara ulermeneren azterketa egin behar du. Horrela, arigune izan daitezkeen talde edo espazioak identifikatzen dira. Hori eginda, arigune izan daitezkeen talde edo kideekin ariketa adostu behar da. Azkenik, arigune gisa izena eman behar da, edo aurretik izanez gero, eskaera berretsi. Hori eginda, entitateak Euskaraldian parte hartuko duela jakinaraziko die kide guztiei. Aldi berean, egokia izan daiteke ariketa prestatzeko baliabideak ematea parte hartzaileei. Entitate barruan euskarazko praktikak bultzatzeko lehentasunezko neurri edo pauso berriak ematea erabaki daiteke, eta hala eginez gero, Euskaraldiak horiek gizarteratzera animatzen du. Ari-



Elai Alai dantza taldea. UTZITAKOIA

gaineratu duenez, "garrantzizkoa den horregatik borrokatu eta erabiltzen jarraitzeko nahiak handiagotzeko, eta haur eta gazteei hori erakusteko balio izan digu arigune izateak".

Botikariak nabarmendu duenez, farmazia arigune izateak eta bertan eskaintzen diren osasun zerbitzuak euskaraz izateak "herritarrekiko euskarazko hartu-emana bermatzea eta bultzatzea ekarriko du Urdiainen". Arigune izanda, ahizpa okinak euskaraz gehiago egiteko aukera izatea espero dute.

keta soziala despeditu ondoren, balorazioa egin eta aurrera begirako neurria erabakitzeko garaia izanen da.

Altsasu

Herriko Euskaraldia Batzordeak kuadrillak arigune gisa izena ematera gonbidatu ditu. Kuadrillak azterketa egin eta guztiak edo zati bat arigune gisa emateko aukera gogorarazi dute. Izena eman aurretik, hori bai, kideen helburuak ongi zehaztea eta horiek errealak izatea eskatu dute.

GUTUNA

Euskaraldiaren garrantzia eta ahalmena

KIKE AMONARRIZ GORRIA
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO
PRESIDENTEA

Gainean dugu Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Lehenengoak sekulako eragina izan zuen. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialak berrikuntza handia suposatzen zuten ordura arte "euskararen alde" antolatutako egitasmoen aldean, Euskal Herri osoko erakundeek eta eragile sozialek elkarlanean antolatu zituztenak, berrehun mila partaide bano gehiago izan zituztenak eta milaka pertsonen beren gorputzetan sentitu zituztenak euskarara jauzi egitearen edo lehen hitza euskaraz egitearen sententzioak, euskaraz egiteko konplizitate eta sare berriak sortu zirelako eta euskara agenda komunikatiboaren erdigunean kokatu zuelako. Bigarrenkoa, pandemia betean egin behar izan genuen, eta burutu ahal izatea bera sekulako arrakasta izan zen. Gainera, era guztietako entitateetan milaka arigune sortu ziren.

Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarrera baten adierazpena, jokoera praktikoa baten inguruko konpromisoa baizik; norbanako mailan nahiz kolektiboan. Ez da euskaraz dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina, erabilera aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala.

Bere ahalmen nagusien artean dago eragin masiboarena. Euskaraldiaren bidez, milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonekin eta egoeratan. Euskaraldiari esker, horretarako bultzada eta motibazioa sentitu dute, eta urrats hori emateko baldintza egokiak sumatu dituzte inguruan. Horregatik da horren garrantzitsua parte hartzea masiboa izatea, ahalik



eta txapa gehien ikustea leku guztietan, eta kaleak berriz hartzea banderolekin, muralekin, etab. Gutxien uste dugun pertsona, giro horretan, euskara erabiltzera animatu daitekeelako, baita Sakanan ere!

Bestalde, era guztietako entitateetan ariguneak sortzea, hizkuntza biziberritze prozesurako oinarriak jartzea da. Batetik, entitate horietan euskararen erabilera erosoak aukerak non dauden identifikatzen dugulako, eta bestetik, aurrera begira, normalizazio-prozesua abiatzeko edo indartzeko urratsa ematen delako.

Garrantzi handiko beste aspektu bat da, Euskal Herri osoan, berau prestatzeko ehunka batzorde sortzea. Euskararen inguruko elkarerik edo bestelako antolakuntzarik ez duten herrietan, ahalik eta gehienak egonkortzea eta iraunaraztea dugu helburu. Euskaraldiaren ondoren ere, erabilera sustatzeko dinamikarekin jarrai dezaten.

Euskaraldia, azken batean, heldulekua da, palanka,

abiapuntua. Inertziak puskatzeko heldulekua da, erabilera urrats bat aurrera eman nahi duten pertsona edo entitate guztientzat. Eta aitzakia egokia, euskarari buruz hausnartzeko eta erabakiak hartzeko. Palanka da, ariketa praktikoa delako eta konpromisoak eta erronkak eskatzen dituelako. Ez da manifestu bat sinatzea eta kito. Hausnarketa kolektibo izugarria ere bada Euskaraldia, non pertsonen eta erakundeen kontraesanak ere agerian geratzen diren: jarreraren eta praktikaren arteko kontraesanak, nahiaren eta portaeraren arteko distantziak. Eta abiapuntua izan nahi du, egun horietako lorpenak eta dinamikak iraunaraztea baita ariketa honen helbururik behinena.

Badakigu, izango ditugun lorpenetatik batzuk mantendu egingo direla eta beste batzuk inertziak jango dituela, baina aurreko Euskaraldiek erakutsi diguten bezala, bukatu eta hilabeteetara, egoera ariketa egin aurretik baino hobea da. Ariketa bakoitzean, partaideek helburu berriak lortzen dituzte eta partaide berri asko integratzen dira lehen aldiz. Horregatik, jarraitu beharko dugu Euskaraldiarekin "kolpeak" bi urtez behin ematen, eta tartean, euskararen erabilera sustatuko duten bestelako egitasmoak bultzatzen, Sakanan eta Euskal Herri osoan.

Honengatik guztiarengatik, eman izena Euskaraldian. Hitzek ekiteko garaia da!

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES S.L.

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGURDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

LAKUNTZA Aurkezpena.

GAZTE KOORDINADORA Sozialistaren
ikasturte hasierako aurkezpena.
18:00etan, Biltokin.

ALTSASU Gazte agenda.

Dardo txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

LAKUNTZA Urri Trans programa:
Film dokumentalaren
emanaldia.

Mi pequeño gran samurai
dokumentalaren emanaldia eta
Naizen Adingabe Transexualen
Elkartaren familien testigantza.
19:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Gazte eguna.

Irurtzango eta Arakilgo Gazte
Asanbladak, Larrazpik eta Irurtzango
GKSk antolatuta.
19:00 GKSren aurkezpena, gaztelaniaz.
kultur etxean.
19:30 Hitzaldia: *Claves para la
construcción del socialismo.*
Kultur etxean.
21:00 Pintxo pote musikatua.
Larrazpin.

ZORION AGURRAK



June Etxegoien
Zelaia
Zorionak pittina 10
urte bete dituzu iada!
Segi horrela! Zure
aitona eta amona.



LARUNBATA 22

ITURMENDI Burundako
mandazainen eguna.

09:30 Herrietako bisitari eta
ordezkariei harrera.
Iturmendiko plazan.
10:15 Topaketa eta
fusilamenduaren birsortzea
Gasteizko Bataila 1813
elkartaren eskutik.
Erregengurutzan.
11:30 Fusilamenduaren birsortzea
Gasteizko Bataila 1813
elkartaren eskutik.
Iturmendiko plazan.
12:30 Bakaiku, Iturmendi eta
Urdiaingo mandazainen
kofradien eta gonbidatutako
udalen ordezkarien
aurkezpena. Fusilamenduari
buruzko liburuxkaren
banaketa eta solasaldia.
Plazan.
13:00 Auzatea.
Plazan.
14:00 Ajoarriero herri bazkaria.
16:00 Bazkalosteko musika Lau
Haizetara taldearekin.

ETXARRI ARANATZ Gazte eguna.

Sakanako eta Goierriko Ernairen
Gazte Eguna.
11:30 Jule Goikoetxea eta Lur
Albizuren hitzaldia: *Borroka,
erresistentzia eta
emantzipazioa.*
13:00 Elkartasun argazkia.
14:30 Elkartasun
bazkaria. Ondoren, Bingo
musikatua.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

La chia salvaje gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Ostirala 21 19:00
Igandea 23 19:30

Los renglones torcidos de Dios
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
Osteguna 27 19:00
Ostirala 28 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Libélulas zineforum filmaren
emanaldia
Igandea 23 19:00

La emperatriz rebelde zineforum
filmaren emanaldia
Osteguna 27 19:00

18:30 DJ Expuela.
Herritik zehar.
23:00 Kontzertuak: Añube, Pleura
eta DJ Zepe & Menor.
IRURTZUN Gazte Eguna.
Irurtzango Gazte Koordinadora
Sozialistaren, Larrazpiren eta
Irurtzango eta Arakilgo Gazte
Asanbladaren Gazte Eguna.
12:00 Gateendako herri kirolak.
Barazkigunean.
14:00 Bazkaria. Ondoren, bingoa.
Barazkigunean.
18:00 Karaokea.
Larrazpin.
21:00 Bokata.
23:00 Kontzertuak: Streetwise,
Fuckop family, Au D'Asti eta
DJ Jotatxo taldeak.
Barazkigunean.

IRURTZUN Dantza jaialdia.

Orritz dantza taldeak antolatuta.
12:30 Baigorriko Arrola dantza
taldearen emanaldia.
Frontoian.
17:00 Dantza ikastaroa.
Gimnasioan.

ETXARRI ARANATZ Antzerkia.

Argako erregina, Lorena Arangoa
aktorearekin. *Sendaberi Paisai*
artistiko berriak programaren barruan.
17:30etan, kultur etxean.

URDIAN Aurkezpena.

Gazte Koordinadora Sozialistaren
ikasturte hasierako aurkezpena.
18:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Zer berri? Proposamenak.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Musika eta umore
ikuskizuna.

Haize Berriak bandaren eta Jesús
Arena musikari eta umoregilearen *No
te montes películas* ikuskizuna.
Sarrerak agortuta.
19:30etan, Iortia kultur gunean.

OLAZTI Umore ikuskizuna.

La Voz del Becario bideo biralen
kanala ikuskizun bihurtu dute.
19:30etan, kultur etxean.

IGANDEA 23

IRAÑETA Erakusketa.

Ziza erakusketa. Irañetako Euskara
Kultur Taldeak antolatuta.
Egunean zehar, udaletxean.

ALTSASU Familia ikuskizuna.

*Perez Sagutxo*a Glu glu konpainiaren
ikuskizuna.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

OLAZTI Ikuskizuna.

Zinestar Tdiferentzia konpainiaren
ikuskizuna.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 24

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 26

ALTSASU Tailerra.

Kafe konpondu.
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.


OSTEGUNA 27

ALTSASU Hitzaldia.

*Pantailak Euskaraz: Ezinbesteko
erronka.* Euskal Herrian Euskaraz
taldeak antolatuta.



**IRURTZUN Haize Berriak
Bandaren 25 urtetako kartelen
erakusketa.**
Urriaren 31ra arte. Pikuxar
tabernan.

ALTSASU Artebideak antolatutako
XI. Arteazoka.

Urriaren 30era arte. Astelehenetik
ostiralera 18:00etatik 20:00etara
eta asteburuak 18:30etik
20:00etara. Iortia kultur guneko
erakusketa gela.

19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

OSTIRALA 28

OLAZTI Urri Trans programa:
Film dokumentalaren
aurkezpena.

LGTBifobia kirolean errealitate bat
da Sakanako Mankomunitateko
Jarduera Fisiko eta Kirol eta
Berdintasun Zerbitzuek Kattalingune
LGTBI+ Zerbitzuarekin batera egindako
film dokumentalaren aurkezpena.
18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Esloveniako Stanislau girl's chori
Maribor abesbatzaren kontzertua,
Nafarroako Abesbatzen Zikloaren
barruan.
19:30etan, elizan.

LAKUNTZA Kontzertua.

Iruñeko Orfeoiko Gazte Abesbatzaren
kontzertua.
20:00etan, kultur etxean.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun 948 500 813 / 948 600 655 info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Azkartasun handiko zerbitzua

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA

Lentzeria eta josketa ikastaroa Olaztin: Urriaren 24tik maiatzaren 29ra izango da, astelehenetan 16:15tik 18:15ra eta ostegunetan 18:00etatik 20:00etara Kultur Etxean. Prezioa 105 euro, izena emateko epea urriaren 27ra arte, Udaletxean, 10:00etatik 14:00etara.

LEHIAKETA

Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana aurkezten ahalko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librean izanen dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gutxienez 200 bertso-lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplonacultura.es web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

OHARRA

Emakumeen arteko sareak ehundu: A25 ekimenaren barruan Sakanako emakumeen topaketa egingo da azaroaren 27an; sortu zure oihal zatia (patchwork, kaporraz, gantxilloa...) eta ekarri topaketara, bertan oihal zati guztiak ehundu diko ditugu. Izena eman azaroaren 22a baino lehen [\[sakana-mank.eus\]\(mailto:sakana-mank.eus\) helbidera idatziz.](mailto:berdintasuna@</p>
</div>
<div data-bbox=)

Irurtzunen Ibilaldi Belzarako sarrerak: urriaren 31n 17:30tik aurrera Ardanzetako xendan egingo den misterioz eta mitologiak beteriko ibilbiderako sarrerak Pikuxarren salgai daude agortu arte. Helduentzat 5 eurotan eta sei urtetik beherakoentzat eta MECNA kideentzat 3 eurotan.

Etxarri Aranzen egur loteak ateratzeko epea luzatzen da: Egurra urriaren 25era arte atera daiteke. Egun horretatik aurrera ezingo dira atera.

Odol emateak Arbizun: Urriaren 27ean, 17:00etatik 20:30ra, Udaletxean. Animatu.

Errigora saskiak betetzeko auzolana: udazkenean "Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" kanpaina egiten du Errigorak, hainbat etxetara milaka Nafarroako hegoaldeko produktuekin milaka kutxa banatuz. Etekinen zati bat Nafarroa erdialde eta hegoaldeko euskalgintzari bideratzen dio. Lastailaren 22an izanen da, Abilitasen. 09:00etan gosaldu egingen dute parte hartzaileek eta lanari 09:30ean ekinen diote. Hura despedituta, 14:30ean, bazkaria izanen da. Errigorearen auzolanean parte hartu nahi duenak www.errigora.eus/auzolana2022 web orrian eman behar du izena.

Bakaikuko Jubilatutako elkarteko bazkide egiteko aukera: Hiru Haitz Jubilatutako elkarteko irailaren 11n egindako bilan bere egotzian herrian erroldatuta dauden herriko jubilatutako sar daitezke erabaki zuten, sarrerarik ordaindu gabe. Horrekin batera bazkide berriek hileko kuotak besterik ez

dituzte ordaindu beharko. Bazkide egiten interesa dutenek urte hasiera baino lehen zuzendaritzako kideekin harremanetan jar daitezke.

Aralarko taberna-jate-txea itxita: Deun Mikel Goiangeluaren Kofradiak jakinarazi duenez, heldu den astelehenetik, hilak 17, azaroaren 8ra arte, Aralarko santutegi ondoko taberna oporregatik itxita egonen da. Hala ere, Aralarko santutegia egunero zabalik egonen da 10:00etatik 18:00etara, astelehenetan izan ezik. Ordutegi berean, santutegi ondoko aterpea eta komunak ere zabalik egonen dira.

Aralarko San Migel Santutegiko beharrak ikusita: erabiltzen ez den eremu bat egokitu nahi da santutegia bisitatzen dutenentzat, eta bertan harrera lekua, kontrolgunea, denda eta komunak, baita interpretazio zentro berria eta kofradiaren egoitza ere. Zaharberri-tzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES11 3008 0045 9840 7184 5517 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Konposta eskuragai: Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuak jakinarazi du edonon har dezakeela konpost Arbizuko UtzubarEKOguneko konpost plantatik. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan daitezke. Nondik hartu jakiteko zerbitzuaren bulegotik pasa behar da. Zakuak eramatea gomendatzen da. Konpost gurdikadak ere eraman daitezke.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Amando Flores Flores

—Goian bego—

2022ko urriaren 16an hil zen, 89 urte zituela

Eskerrik asko gure bizitzetan jarri duzun maitasunagatik.

Gure bihotzetan beti

Zure familiye



OROIGARRIA

Mikel Apaolaza Mendia

IV.urteurrena

Zure irribarreak beti argituko gaitu



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Tasmin Soukah Ez Zaher**, urriaren 8an Etxarri Aranzen
- **Sulaiman Azani**, urriaren 9an Altsasun
- **Thalia Vaz Dos Santos**, urriaren 11n Altsasun
- **Ekai Orradre Urriza**, urriaren 12an Etxarri Aranzen
- **Alar Petriati Murias**, urriaren 13an Arbizun
- **Irati Ortiz Leon**, urriaren 16an Altsasun

HERIOTZAK

- **Mari Carmen Lazkano Larunbe**, urriaren 11n Lakuntzan
- **Juan Jose Lopez Lopez**, urriaren 12an Iturmendin
- **Catalina Heredia Cruz**, urriaren 14an Altsasun
- **Amando Flores Flores**, urriaren 16an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarki Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Lehen jardunaldian galdu ondoren, presio gehiago du Ezkurdiak. ASPE

Hortzak estutu eta irabaztera behartuta dago Ezkurdia

PILOTA Lau eta Erdiko finalerdietara sailkatzeko Elezkano mendean hartu beharra du arbizuarrak

Sorpresarekin hasi zen Lau eta Erdiko Txapelketako final laurdenetako ligaxka. Aitor Elordik 22 eta 17 irabazi zion Joseba Ezkurdia faborito nagusiari lotsagabe jokatu. "Ezkurdiari irabazteak titulu bat baino gehiago balio du" azaldu du bizkaitarrak, eta ez da gutxiagorako. Kontua da puntu hori lortu ez izanagatik presio gehiago duela aurrelari arbizuarrak eta txapelketan aurrera egiteko bigarren jardunaldian irabaztera behartuta dago. Gaur, ostirala, Tafallan, Danel Elezkano izango du aurkari. Elezkano Lasoren kontra jipoi

ederra jasotzetik dator eta Ezkurdia da irabazteko faborito argia, baina Tafallak erabakiko du. Beste partidei dagokienez, Lasok Elordi izango du aurkari, Dariok Peña II.a eta Altunak Peio Etxeberria.

Bakaikoaren bigarren

Joanes Bakaikoak hanka eta erdia baino gehiago du Promozioko Lau eta Erdiko finalerdietan. Astelehenean 7 tantotan utzi zuen Exposito eta bere bigarren puntua lortu zuen. Larunbatean Alberdi izango du aurkari, Labriten.



Uhartearren podiuma Aramotzen

MENDI LASTERKETAK Asteburuan Aramotz mendi lasterketa jokatu zen, Zornotzako Mendi Astearen barruan. 17 kilometroko proban bi uharte arakildar izan ziren protagonista, Maria Riscok irabazi baitzuen (2:07:25) Itziar Retegi taldekidearen aurretik (2:12:43). Gizonezkoetan Jose Javier Beregaña 25. sailkatu zen (1:57:22).

"Jarraikortasuna izatea eta disfrutatzea, hori espero dut"

IMANOL ERBITI OLLO MOVISTAR TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Urte gogorraren ondoren, merezitako atsedena hartu du Ihabarko txirrindulariak. Datorren urtean bere 19. denboraldiari ekingo dio, gogotsu

Maidar Betelu Ganboa HIRIBERRI

Imanol Erbiti Ollorrendako (Hiriberri, 1983-11-15) arraroa izan da despeditu berri den 2022 txirrindularitza denboraldia, jarraikortasunik gabea. COVID-19, alergiak, erorikoak, ez ohiko egutegia... denetatik izan du Hiriberrikoak, eta datorren denboraldian jarraikortasuna izatea eta disfrutatzea, hori da espero duena.

Frantziako Tourra COVID-19arengatik utzi behar izatea pena handia izango zen, ezta?

Bai, eta sintomarik ez nuela kontuan hartuta, are gehiago. Sekulako amorrua eman zidan horrek. Baina horrela tokatzen denean onartzea, ez dago besterik.

Dauphinéko erorikoak Tourra presatzen harrapatu zintuen, eta hori ere denboraldiko beste gurutz bide bat izan zen, nahiz eta gero osatu eta Tourrean aritu.

Ordura arte alergiaren arazoak izaten ditut, eta hain justu nahi bezala ari nintzenez, txiribuelta eta lurrera. Kirola horrelakoa da. Batzuetan guztia primeran ateratzen da, baina beste batzuetan bolada txarrak izaten dira. **Aurtengoa denboraldi guztiz arraroa izan da: erorikoak, COVID-19, Movistar Team taldeak World Tour mailatik ez jaisteko puntuak bildu beharra... Denboraldia nola definituko zenuke?**

Jarraikortasunik gabekoa; arazo guztien ondorioz jarraikortasuna izatea kosta egin zait.

Movistar Team maila galtzeko arriskuan egotea ere bitxia izan da.

Bai, azkenean arazoetan sartu eta agian espero ez genuen egoera batean ikusi genuen gure burua, baina erantzuten jakin genuen eta eskenatoki berrira egokitu behar izan genuen. Zorionez, egoerari buelta eman genion eta lasai bukatu dugu denboraldia, pozik.

Zuena bezalako talde ahaltu bat maila galtzeko zorian egotea sekulako presioa izango zen.

Arau hau duela hiru urte jarri zen indarrean eta aurten betetzen zen. Bazirudien ez ginela arrisku egoera horretan egongo, baina aurten azterketa iritsi zen eta etxeko lanak bukatu gabe harrapatu gintuen, korrika ibili behar izan dugu. Horrela laburbildu genezake. Azterketa gainditu dugu eta airea hartu dugu, baina gertatutakoa etorkizunerako lezio gisa hartzen dut.

Nolako lezioa?

Adi egon beharra dugula. Izan ere, ongi zaude, baina bat batean gauzak okertzen hasten dira, aurten Enric Masen erorikoekin eta bestelakoekin gertatu zaigun bezala, eta ia konturatu gabe burua estu ikusten duzu. Euskal Herriko Itzulian, Tirrenon eta bestelakoetan izandako erorikoen ondotik eta Enricen Tourra utzi beharra izan zuenean eskura genituen puntu asko galdu genituen eta egoera zaildu egin zitzaigun.

Puntu behar horrengatik egutegia aldatu eta aurten Espainiako Vueltan ez lehiatzea arraro egin zitzazun?

Faltan bota nuen, Vuelta jokatzeko polita delako, baina 2018an ere ez nuen parte hartu, egutegi alternatiboan aritzea egokitu zitzaidalako. Eta esan beharra dago egutegi alternatiboan ez zarela aspertzen, ez baitzara gelditzen. Probak eta bidaiak kontuan hartuta, Vueltako lehiaketako ia egun berberak egiten dituzu, baina jarraian izan beharrean banatuta, toki batetik bestera.

Hiru asteko itzuli gogor bat gaitetik kentzea agian zure gorputzari ez zaio gaizki etorri.

Izan daiteke, 21 egunez jarraian lehiatzeko exigentzia handia baita. Datorren urtean ikusiko dugu (kar, kar).

Azkeneko lasterketak aurten erretiroa hartu duen Alejandro Valverdearen alboan egin zenituen, Italian. Valverde urte luzez zure lider, taldekide eta laguna izan da. Bere agurra nola bizi izan duzu?

Nahiz eta pena sentitu, normaltasunez bizitzen saiatu naiz, erretiroa logikoa delako eta guztioi iritsiko zaigulako, jakina. Baina emozio handikoa izan zen, ederra. Italiako azken monumentuan, Lombardian, Alejandro laguntzea oso polita izan zen, laguna dudalako. Urteak eta urteak eman ditugu une gozoak eta une txarrak partekatzen, eta berezia eta hunkigarria izan zen.

Gainera, maila horretako txirrindulari bat bere azken egunean etapa garaipenagatik borrokatzen despeditzea handia izan zen. Askok ezingo dute hori esan, baina bere mailaren, duen konpromisoaren eta bere lehiaketa senaren erakuslea da hori. Oso polita.

Maila profesionalen zure 19. denboraldiari ekingo diozu datorren urtean, 39 urterekin, eta guztiak eskudra berdinean. Halako egoeran zauden tropeleko bakarrenetako izango zara, ez?

Baietz uste dut, normalean talde aldaketa asko izaten direlako. Oso pozik nago txirrindularitzan jarraituko dudalako. 2023an horrenbeste arazo eta ustekabe ez izatea da espero dudana, urte normal bat izatea, egonkortasun gehiagorekin. Txirrindularitzaz normaltasunaz disfrutatzea, finean. Izan ere, aurten batzuetan erlojuaren kontra nenbela sentitu naiz, etengabe korrikaldian: Dauphiné erorikoaren ondotik Tourrera iristeko korrika, taldearendako puntuak lortzeko korrika...

Alejandoren erretiroak aldaketak ekarriko ditu Movistar Team-en.

Bai, erreferente bat doa, taldeari zentzua eman dion liderra. Alejandro pisu erraldoia zuen taldean. Hori dela eta gerta daitezkeen beste aldaketak direla medio, egoera berrira egokitze gogor egin beharko da lan. Bestetik, aurrerapausoa eman duten txirrindulariak ditugu, itxura ona dutenak, progresioan daudenak eta, guztia ongi badoa, erreferente izango direnak, aukera gehiago izango dituztelako.

Talde gizona, liderren bizkartzain fidela, esperientzia handikoa, lan-gile petoa eta taldean eta tropelean oso preziatua zaren txirrindularia zara. Taldean estatusa izango duzu. Estatusa izan daiteke, baina ez da horrela ikusi behar. Azken finean taldekideak laguntzen saiatu beharra dut, taldekideei gauzak erraztu. Hori da nire funtzio nagusia: taldekideei lasaitasuna transmititzea, esperientziak ematen dizun sosegua islatzea gauzak egiteko edo ibilbideak ezagutzeko orduan, aurretik bizi izan duzuna haiei azaltzea eta eurak babestea. Laburbilduz, taldekideak laguntzea eta orden bat mantentzea. Gazteei gauza gehiago transmititu ahal dizkiezu, oraindik ez dituztelako bizi. Nola iristen dira txirrindulari gazteak maila profesionalera? Zure burua islatuta ikusten duzu?

Ez, ezberdintasunak daude. Gaur guztia oso teknikoa da, eta txirrindulari gazteak horrekin jaio dira. Aurreratuagoak daude, ni iritsi nintzenez baino profesionalagoak dira. Hala ere, erronka berbera da, pedalkadak ahalik eta azkarrenen egitea, nahiz eta moduak edo baldintzak ezberdinak izan. Beraz, ezberdina da, baina aldi berean berdina. Ez dago erotu beharrik, eta lana zentzumenez eta inteligentziaz egitea, horrek bulkatzen zaitu aurrera.

Prestakuntzak milimetratuak dira gaur egun, makinak dirudizue.

Gogoan dut entrenamenduan buelta luzea egiten genuenean eta etxera neka barratuta iristean pentsatzen genuela: gaur ongi entrenatu dut. Orain guztiz ezberdina da. Puntu honetan X potentzian joan beharra duzu, hurrengo tartean bestean... Datu asko maneiatzen dira prestakuntza modu ordenatuan eta planifikatuan egiteko, kontrol handia dago, baina horrek ere burua asko nekatzen du. Dena den, egungo garaiak horrelakoak dira. Unean unekoa.

13 Tourretan, 14 Vueltatan eta Giro batean parte hartu duzu, gainontzeko klasiko eta lasterketak kontuan hartu gabe. Datorren urtean zein lasterketa egin nahiko zenuke guztiaren gainetik?

Azken urteetan egin dudana egutegia gustuko dut, baina ez dakit nola etorriko den datorren denboraldia, liderren eta taldeak dituen asmoen arabera izango da. Dena den, interesgarriena lider on bat doan tokira joatea dela uste dut, talde gizona naizelako eta hor gehiago eman ahal dudalako. Itzuli handi bat gazte askorekin egitea ongi dago, baina lider on baten alde lan egiten denean eta lasterketa orden zehatza dagoenean gehiago eskaini ahal diozu taldeari. Dena den, zein lasterketetan aritu baino, datorren denboraldian erorketarik ez izatea, COVID-ak arazorik ez ematea eta lasterketetan disfrutatzea, berdina zait zeinetan, hori da nahi dudana.

Galtzadarrien klasiko handiak omen dituzu gustuko.

Bai, baina maitasun-gorroto harremana dut eurekin. Gustuko ditut, taldeak askatasuna ematen dit klasikoetan ongi aritzeko, baina atsekabe gehien sortu izan dizkidatenak dira, hain zuzen ere alergiaren garaian izaten direlako. Askotan saiatu naiz ongi



Erbiti denboraldiko azken proban, Lombardian, Valverderen agurrean. MOVISTAR TEAM

iristen, aurrean egoten, eta ez dut jakin izan, edo ez da posible izan, edo alergiak ez dit ongi aritzen utzi... kontua da arazo asko izan ditudala klasiko hauetan. Alergien aldetik askotan izaten dudana asterik okerrenean izaten dira klasiko hauek, eta sarritan gertatu izan zait ilusioz gainezka joatea eta gurutzatuta itzultzea. Udaberrian polen mota bati diot alergia, baina bereziki akaroen alergiak sortzen dit kalte gehien, udaberrian eta udazkenean. Bi piko izaten ditut. Horrenbestera al da?

"GERTATUTAKOA ETORKIZUNERAKO LEZIO GISA HARTZEN DUT: ADI EGON BEHARRA DUGU"

"ALEJANDROK PISU ERRALDOIA ZUEN TALDEAN. EGOERARA EGOKITZEKO GOGOR EGIN BEHARKO DA LAN"

Alergiak ez dizu zure benetako maila erakusten uzten. Errendimendua mugatzen dizu, eta hori buruarendako oso gogorra da. Gehienbat arnastean nabaritzen dut, ez baitut ongi arnasten. Lasai joan behar duzunean estutu-ta zoaz eta topera jarri behar zarenean ezin duzu zure maila eman. Zure maila baino %20 gutxiagoan zaude eta lehiatzeko latza da hori. Eta zaila da erregulatzen, sistema immuneari dagokiolako. Sistema immuneak, defendatzeko, bronkiok ixten ditu, eta nahiz eta inhalagailua erabili, gehienez zure mailaren %80a heltzen zara, eta hori lehiaketan alde handia da. Konpontzeko zaila den arazoa da, eta sekulako sumina sortzen dit.

Orain merezitako atsedena hartzen ari zara. Noiz arte?

Orain deskonektatzen dut eta beste aktibitateak egiten ditut, mendira joan edo korrika egin, esaterako. Familiarekin eta lagunekin gustura egoteko tartea dut, gogoz aprobeztatzen dudana. Azaroan planifikatutako entrenamenduekin hasiko naiz eta taldeko lehen kontzentrazioa egingo dugu, datorren denboraldia antolatzeko.

Urte berria eta aldaketa handiak.

Bai, ea ongi hasten garen eta denboraldia normal doan. Jarrakortasuna izatea, disfrutatzea eta dagokidan liderrari laguntzea, horiek dira nire nahiak. Disfrutatzea, disfrutatzen baduzu guztia ongi doamaren seinale baita.

Gorka Izagirrek ere segiko du

Movistar Team-ek ostegunean aurkeztu zuen 2023 denboraldirako kartela. Gizonetzkoetan Enric Mas eta Alex Aranburu izango dira lider nagusiak, eta emakumezkoetan aurten guztia irabazi duen Annemiek Van Vleuten. Lourdes Oyarbide izango da bere ezinbesteko laguntzaileetako bat. Imanol Erbitirekin batera, Gorka Izagirrek beste urte batez jarraituko du eskudra urdinean, eta biak liderren ezinbesteko ezkutariak izango dira.



Axio Aranburu mendizale altsasuarra zenaren ahizpak, Aitziberrek, jaso zuen oroiagarria Alex Txikonen eskutik.

Txaloak eta malkoak Mendizaletasunaren Galan

MENDIA Euskal Mendi Federazioko sariak eta Pyrenaica sariak banatzeaz gain, Txumarra eta Axio Aranburu zendutako mendizaleak izan zituzten gogoan eta Joxemi Larreak aitortza jaso zuen. Altsasuko kultur taldeek ekitaldia girotu zuten

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Iortia Kultur Guneak Naiara eta Maddi Urkijo ahizpen txalaparta doinuekin hartu zituen Euskal Mendi Federazioak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak elkarrekin antolatutako 26. Euskal Mendizaletasunaren Galara hurbildu ziren gonbidatuak. Gala prestatzeko Altsasuko Mendigoizaleak eta Dantzaleku Sakana klubek egindako "lan eder eta ordainezina bihotzez" eskertu zuten bi federazioetako presidentek, Zigor Egiak eta Martin Montañesek. Iortia gela nagusia bete zela, Leire Mateosek eta Aitziber Gradosek aurkeztu zuten gala, eta Altsasuko alkate Javier Ollok ongi etorria eman zien guztiei.

Mendigoizaleen Eguna, elkarrekin Bi federazioek elkarrekin lan egiteko hautua egin dute. Aste-bete lehenago Euskal Erdigunera Martxan, Beriainen, Euskal Herriko Mendi Biltzarra aurkeztu zuten, elkarrekin lan egiteko sortu duten organo iraunkor berria. "Orain organo horrek zein marko juridiko edo zuzenbide esparru izango duen azter-

tzen ari gara" azaldu zuen Zigor Egiak. 2024an Federación Vasco Navarra de Alpinismo sortu zela 100 urte beteko direla azaldu zuen, eta urte horretarako makina bat ekitaldi antolatzen ari direla nabarmendu zuen. Martin Montañesek gogoratu zuen 1924an Elgetan sortutako federazioa bakarra zela, baina 1987an banatu zutela, Autonomien Estatua aplikatu zutenean, eta bi federazioek elkarlanean aritzeko hartutako erabakiarekin jatorrira itzuli nahi dutela. "Bi federazioak sintonia eta bide berean gaude" nabarmendu zuen. Halaber, aurtun abenduaren 18an Aralarko San Migelen izango den Mendigoizaleen Eguna elkarrekin antolatuko dutela gaineratu zuen.

Txumarra gogoan Euskal Mendizale Federazioak urteko sariak banatu zituen segidan, eta omenaldien tartea iritsi zen. Lehen omendua 40 urte baino gehiagotan Anaitasunako mendi ataleko arduradun izan zen Jesus Mari Garisoain Goñi Txumarra ezaguna izan zen. Martin Montañesek hitz ederrak izan zituen otsailen zendu zen

"Mendizaletasuna asko aldatu da. Eta mendia ere"

JOXEMI LARREA ARAÑA MENDIZALEA ETA JUBILATUTAKO SUHILTZAILEA. EUSKAL MENDIZALETASUNAREN GALAKO OMENDUETAKO BAT

Euskal Mendizaletasunaren Galan omendu zituzten hiru pertsonen artean bizirik zauden bakarra zara, eta sasoi betean zaude, gainera.

Beno, sasoi betean... (kar, kar), baina bai, omenduen artean bizirik nagoen bakarra. Jendeak hori esaten zidan, omenaldiak bizirik gaudela egin behar direla. Nik ez nuen omenaldia jasotzea nahi. Ez zait gustatzen. Ni suhiltzaile izan naiz eta plazer bat izan da niretako, nahiz eta nire lana izan. Besteek bai, merezi zuten, baina nik...

Zuk egindako lana aitortu badute zerbaitegatik izango da.

Lotsatia naiz horretarako, baina beno...

Beste omenduak, Txumarra eta Axio Aranburu, ezagutu al zenituen?

Txumarra asko ezagutu nuen. Pirinioetako Zeharkaldiren bat berarekin egin izan dut, eta Belaguako Goi Ibilbidean ere berarekin egon nintzen, duela asko. Txumarrek Mendi Kirolak dendan lan egiten zuen eta nik han erosten nuen materiala. Axioaren kasuan, aita eta osaba ezagutzen nituen gehiago, baina bera inguruan bueltaka ibiltzen zen.

Altsasuko Suhiltzaileen Parkeko sarjentua zinen.

Guztira 36 urtez izan nintzen suhiltzaile, eta gozamen hutsa izan da, pagotxa. Une larriak ere badaude, baina gure lana ongi ikusita eta baloratuta dago. Jendeak esker oneko hitzak izaten ditu. Nik gustura egin dut lan.

Nafarroako Suhiltzaileen Erreskate Taldearen sorreran parte hartu zenuen. Nola ikusi zenuten behar hori?

Mendi erreskateetarako Guardia Zibilaren taldea, GREIM (Grupos de Rescate Especial de Intervención en Montaña) delakoa zegoen orduan Nafarroan. Paradoxa zen. Helikopteroa suhiltzaileena zen, baina mendiko erreskateren bat zegoenean GREIM joaten zen suhiltzaileen helikopteroan. Suhiltzaile batzuek uste genuen guk egin behar genituela erreskate horiek, gureak zerbitzu integrala izan behar zuela, hau da, denetariko larrialdiak egin behar genituela, bai auto istripuak, suteak eta baita edozein motako erreskateak ere. Mendi Federazioa jo genuen, eta euren laguntzarekin formakuntza jaso genuen. Talde majo bat geunden. Astero egiten genituen praktikak Iruñean, Etxaurin... Horrela, Nafarroako Suhiltzaileen Erreskate Taldea sortu genuen.

Garai haietan mendi istripuetara bi taldeak joatea, Guardia Zibilarena eta zuena, egokituko zitzaizuen.

Jakina, niri tokatu izan zait, suhiltzaile nintzela, Beriaingo erreskateren batean bi taldeak egotea. Gainera, GREIM-ekin harremanak ez ziren onak. Beraiek betiko kontuarekin: istripu bat zegoenean euren presentzia beharrezkoa zela atestatu bat egin beharra zegoelako, eta suhiltzaileek ezin genuela atestaturik egin. Hori zen euren aitzakia. Zorionez, duela bi urte inguru Nafarroako protokoloa aldatu zen eta ordutik aurrera larrialdietara hots egin, eta Suhiltzaileen Erreskate Talde Teknikoa (GRT) arduratzen da erreskateez, alboan Foruzainak dituztela. Hau da, GREIM taldea kendu zen. Ildo honetan, suhiltzaileen GRT taldea oso-oso prestatuta dagoela argi utzi nahi dut. GRT taldeak sekulako prestakuntza du, edozein erreskate mota egiteko prestatuta daude. Ez dio inolako inbidiarik GREIM taldeari. Gainera, helikopteroa suhiltzaileena da, garabiarekin ibiltzeko espezialista bat dago eta material aldetik oso ongi ekipatuta daude. Primeran zainduta gaude.

Omenaldian nabarmendu zutenek, Beriainen istripuak egoten direnean zuri hots egiten dizute laguntza eske.

GRT taldea dagoenetik jada ez, baina aurretik bai, deitzen ninduten, Beriain ongi ezagutzen dudalako. Gogoan dut egon nintzen azkeneko erreskatea, 2018an. Altsasuko Suhiltzaileen Parkean geunden gosaltzen, suhiltzaileek gonbidatuta, eta orduan jaso zuten deia, Beriainen pertsona bat erori zela. Joateko eskatu zidaten. Nondik sartu, nondik atera... tokia ezagutzen dut. Guardia Zibileko GREIM taldea igo zen helikopteroan, eta suhiltzaileak behean gelditu ziren. GREIM-en azken erreskateetako bat izan zen, GRT taldeak kompetentzia hartu baino lehen. Etxarri Aranazko neska gaztea zen, pena handia. Berehala aurkitu genuen.

Martin Montañesek ere azaldu izan du Beriain mendi istripuen puntu beltzetako bat dela. Zergatik?

Faktore asko daude, baina nik gaur egun faltan botatzen dudana da mendi batera joan aurretiko planifikazioa, hau da, irteera ongi prestatzea. Askok ez dute egiten. Sare Sozialek eta teknologia berriek ere ez dute gehiegi laguntzen. Badirudi ia edozein gai dela edonora igotzeko, eta ez da horrela. Beriain mendi oso polita da, zoragarria. Baina agian harria edo arroka bustita dago, irrist egin daiteke... ongi prestatuta joan

mendizalearendako. "Txumarra mendizaleatasunari lotutako proiektu handi eta ederren arima izan zen" nabarmendu zuen Montañesek. Pirinioetako Zeharkaldia izan zen bere obra nagusietako bat, aurkezleek nabarmendu zuten bezala. Bere omenez bideo bat eskaini zen, duela 20 urte grabatutakoa, berak antolatutako Pirinioetako Zeharkaldiko 15. urteurrenarena, hain zuzen ere.

Aranburu eta Larrea

Erkudengo Ama abesbatzak bi kantu eder eskaini eta gero, bi sakandarrek aitortza jaso zuten. Lehena 2016an Alpe frantziarrretan Écrins eskalatzen ari zela zendutako Axio Aranburu Zurutuza alpinista eta eskalatazaile altsasuarra izan zen. "Gorenean zaude" nabarmendu zuten aurkezleek, Aitziber bere ahizpak eta ilobak Alex Txikonen eskutik oroigarria jasotzen zutela. Bigarrena Joxemi Larrea izan zen, mendizalea eta Altsasuko Suhiltzaileen parkeko sarjentua izan zena, erreska-teetan bere laguntza emateko beti prestu. Txalo zaparrada jaso zuten biek.

Tarima Beltzak garai bateko mendizaleen irteera baten parodia egin zuen. Segidan, *Pyrenaica* aldizkariko zuzendari Iban Ruizek aldizkariaren sariak aurkeztu zituen eta saritu guztiek oroigarria jaso zuten. Dantzarima taldeak eskainitako dantza ikusgarriaren ondoren, eguneko protagonistak oholtzara igo eta Altsasuko txistularien doinuei jarraiki, dantzariak agurra eta aureskua eskaini zieten. Ekitaldia ixteko Erkudengo Ama abesbatzak *Agur Jaunak* kantatu zien bildutakoei, bati baino gehiagori malakoak erortzen zitzaizkiola. Euskal Mendizaleatasunaren Gala behar bezala despeditzeko, 120 lagun afaltzera bildu ziren Zubetia elkartearen.

Partaide guztiei esker ona

Altsasuko Mendigoizaleak taldeetik eskerrik berezienak eman nahi dizkiete galan parte hartu duten kultur eragile guztiei, aurkezleei, Iortiako teknikari eta langileei, eta bestelako antolakuntza lanak egin dituztenei. "Guzti, guztiei, milesker horren gala polita prestatzen parte hartzeagatik" nabarmendu dute.



Erkudengo Ama abesbatzak hiru kantu eskaini zituen, bi mendiarekin lotutakoak, eta 'Agur Jaunak', ekitaldia itxi zuena.



'Pyrenaica' aldizkariko sarietako saridunak, Altsasuko erraldoien ondoan.

behar da, ezin da nolanhiko zapatillekin joan. Eta abiatu aurretik eguraldi aurreikuspenak begiratu behar dira.

Ihurbainetik igotzea ez da erraza izango.

Ihurbainek ez du arazo handirik, baina baditu oso teknikoak diren pauso batzuk. Gaur egun Ihurbain ongi ekipatuta dago: spirit, parabolts, kibikoak... denak sartuta dauzka, baina bertatik igotzeko soka eraman behar da, kaskoa... esandakoa, aurretik prestatu beharra dago, eta gutxienez beste norbaitekin joan. Batzuetan konfiantza gehiegiz aritzen da jendea. Ez dakit nola azaldu, badirudi batzuek tontorra euren gana ekartzea nahi dutela, beraiek tontorrera joatea baino. Mendia gure beharretara egokitu nahi dugu, hori ari da gertatzen, eta gero datoz kontuak.

Prestakuntza ezinbestekoa dela.

Bai, aurretik irteera planifikatzea eta gutxieneko prestakuntza izatea. Autobabesa deitzen dioguna. Hau da, mendira joan behar bazara, mendian ibiltzeko gai izan beharko zara. Gutxieneko formakuntza izatea, autosufiziente izateko, sikiera. Jende asko galtzen da mendian, eta gaur egun hori gertatzea ez dut ulertzen, telefono gehienek GPS-a dutela kontuan izanda. Mugikorraren GPS-a erabiltzen ikasi beharra dago, oso erraza da. Edozein ibilbideren planifikazioa egiteko tresna,



"36 URTEZ IZAN NINTZEN SUHILTZAILE. PLAZER HUTSA IZAN DA. GUSTURA EGIN DUT LAN, JENDEA ESKER ONEKOA DA"

"AURRETIK IRTEERA PLANIFIKATZEA ETA PRESTAKUNTZA, EZINBESTEKOAK DIRA MENDIRA JOATEKO"

programa eta aplikazio pila bat daude, eta zerbait jakitea derrigorrezkoa da. Ildo honetan, mendi ibilbideak jasotzen dituen Wikiloc aplikazioa aipatu nahiko nuke. Edozeinek igo ahal du ibilbide bat, beraz, Wikiloc-en dauden ibilbideak aurretik ere aztertzen eta filtratzen jakin behar dugu.

Altsasuko Mendigoizaleak taldearekin mendian ibiltzen jakiteko tresnen ikastaroa eskaini izan duzu Andres Bengoetxearekin.

Bai, eta beste ikastaroren bat egiteko asmoa dugu. Pandemia dela eta bi urte darabagu halakorik egin gabe, eta ea pixkanaka jendea birziklatzen hasten garen. Kartografia, iparrorratza, betiko tresnak, egungo GPS-ak, mugikorrak... denetatik.

Bizitza osoan mendian.

Lehen suhiltzaileekin nengoen federatuta, gure taldea baikenuen. Irteerak egiten genituen eta eskalatzera ere beraiekin joaten nintzen. Ondoren Altsasuko Mendigoizaleekin federatu nintzen.

Betiko mendizaleatasuna desagertzen ari al da?

Mendizaleatasuna asko aldatu da. Eta mendia bera ere asko aldatu da. Pentsa, duela 20 egun Aneton egon ginen. Pioleta, kranpoiak... denetatik eraman genuen, eta ez ziren beharrezkoak izan, elurrik ez zegoelako. Bestalde, mendizaleatasunaren filosofia aldatu da, guztiz. Mendia ahalik eta

denbora gutxienean igo nahi da, errekorrak apurtu, material ikusgarria erabili... eta ez dakit mezua argi ote dugun. Norberak bere mugak ditu. Esaterako, ni ez naiz Everestera igotzeko gai. Jakitun naiz, eta, hortaz, beste tontor batzuk egingo ditut. Baina jende askok ez ditu bere mugak onartzen. Talde handi batean izena emango du, Everesteko oinarrizko kanpamendura helikopteroz eramango dute, eta jende askoren artean, oxigenoarekin eta nola edo ahala, tontorreraino igoko da edo igoko dute. Hori gustatzen zaigu? Ez dakit. Ni non kokatzen naizen? Eskalatzen dudana bezala: estilo klasikoan. Eskaladan ere iruditzen zait pasatzen ari garela. Edonor joan daiteke arrokara, taladratu, txapa batzuk jarri eta bide bat zabaldu.

Nafarroako Mendi Federazioak badu nahikoa lan.

Oso lan zaila du federazioak, lan handia. Nik uste dut hausnartu beharra dugula, non gauden eta nora joan nahi dugun pentsatu. Sare Sozialetan ere, esate baterako, Hiru Haitzei "Urbasako leihoak" esaten omen diete orain. Eta hori nola kontrolatu?

Omenaldiko saria polita al zen? Non jarri duzu?

Oso polita zen. Emazteak tximini gainean jarri du.

Merezitako saria da, guztiz.

Lotsa ematen dit, baina milesker.

FUTBOL PREFERENTEA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Etxarri Aranatz - Itaroa Huarte	1-1
Soto Ibarbaso - Lagun Artea	3-2
Lezkairu - Altsasu	1-1

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	14
3	Altsasu	11
8	Etxarri Aranatz	9
16	Lagun Artea	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, URRIAK 22

16:30 Lagun Artea - Egües (*Zelai Berni*)

IGANDEA, URRIAK 23

15:30 Burladés - Etxarri A. (*Ripagaina*)

17:00 Altsasu - Soto Ibarbaso (*Dantzaleku*)

Altsasu, goiko postuetan jarraituzera

Altsasuk Lezkairuko Soto Ibarbaso taldea hartuko du igandean Dantzalekun. Puntuak biltzen jarraitu nahi dute gorritxoek.

Etxarrik Burlatan jokatu du

Zapore gutxi zuen puntua bildu zuen Etxarrik aurreko asteburuan. Burladésen kontra puntuak zakua bete nahi dute.

Lagun Arteak Egües hartuko du

Lagun Arteak etxean jokatu du eta zaleen babesarekin Egüesen kontra jokoan dauden hiru puntuak lortu nahi ditu.

PREFERENTEA EMAK.

3. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Berriozar	1-0
---------------------	-----

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA

1	Burladés	9
7	Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, URRIAK 22

16:00 Altsasu - Gazte Berriak (*Dantzaleku*)

Altsasu vs Berriozar

Denboraldiko lehen garaipena lortuta, bide berean segi nahi dute altsasuarrek.

FUTBOL ERREGIONALA

5. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu B - Arrotxapea B	2-3
--------------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Arrotxapea B	15
8	Altsasu	7

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATA, URRIAK 22

16:00 Amaya - Altsasu B (*Amaya*)

Altsasuk Amaya izango du arerio

Liderraren kontra galdu eta gero, Amayaren kontra hiru puntuak lortu nahi ditu Altsasuk.

Errepikatzeko moduko esperientzia

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsporteko Arkaitz Irigoien pilotuak eta Raul Lopez kopilotuak lehen aldiz parte hartu zuten elkarrekin rally batean, Gernika Lumokoan. Rallya bukatu izana positibotzat jo dute, auto askok ezin izan baitzuten proba bukatu

Maider Betelu Ganboa OLAZTI / BAKAIKU

"Orain arte ez ginen elkarrekin rally batean aritu eta probatzen joan ginen". Raul Lopez "Paxu" kopilotuaren hitzak dira. Arkaitz Irigoien pilotu bakai-kuarrarekin (Renault Clio) asteburuan XXIX. Gernika Lumo Rallyan aritu zen, eta Sakana Motorsporteko bikotea txukun aritu zen. "Kontuan hartuta hamasei taldek ezin izan zutela proba bukatu eta gu lehenengo aldiz aritzen ginela, kontentua gaude" gaineratu du. 27. postuan sailkatu ziren (1:02:45), baina hori gutxienezkoa da.

Rallya larunbatean jokatu zen. 174 km ziren guztira, 89 abiadurakoak, zortzi eremutan banatuta, lau goizez eta beste lau arratsaldez. "Zerrendan atzetik atera ginenez, aurreikusitakoa gertatu zen, ibilbidean istripuak eta matxurak topatu genituela, baina gutxika elkar ulertzen hasi ginen, geure lehen aldia baitzen. Lasterketari erritmoa



Arkaitz Irigoien eta Raul Lopez Gernika Lumoko Rallyan. UTZITAKOA

hartu genion eta oso pozik bukatu genuen, eremu azkarrak eta toki estu eta zailak tartekatzen dituen Gernika Lumokoa bezalako rally zaila bukatzea ez baita gutxi" dio kopilotu olaztiarrak.

Halaber, izan zuten asistentzia eta laguntza bikaina eskertu du Lopezek, "guztiek elkarrekin talde bikaina osatu genuelako", baita babesleak ere—BP tailerrak, Gruas Kintin; Jule moda eta serigrafia eta Juga Racing—.



Onddo Lasterketak harrera bikaina

ATLETISMOA Beste behin, Dantzaleku Sakanak antolatutako Onddo Lasterketak primerako erantzuna izan zuen. 231 pertsona animatu ziren Pilotajauku, Otaibarren, Basoixi, San Pedro, Urkullu eta Otadia batu zituen 7 kilometroko ibilbidea oinez edo korrika

egitera. Partaide askok aurtengo kamiseta txuria zuten soinean. Bukaeran hiru onddo saski zozketatu ziren, eta Nerea Perez, Gorka Martinez eta Jon Lapuente izan ziren onuradunak. Ondoren jokatuak XLII. Eskola Arteko Krosean 82 neska-mutikok hartu zuten parte.



Zelandin astebururo giroa egongo da.

Altsasuko CBASK saski taldeak martxan daude

SASKIBALOA Bigarren maila Autonomikoan Narum CBASK taldeak lider hasi du denboraldia

Lehendabiziko bi jardunaldietan garaipen sendoak lortu eta gero, Bigarren Maila Autonomikoan dabilen Narum CBASK taldeak lider hasi du denboraldia. Altsasuarrek Deam Clavijori 66 eta 82 irabazi zituen, eta Loyolari 73 eta 46. Narum CBASK-ek larunbatean Berriozarren jokatu du, aspaldiko ezaguna den Humiclimaren kontra, 17:20ean. Gogoratu joan zen denboraldian Lauko Finala jokatzeko atarian geratu zela CBASK, Humiclimaren kontra galdu eta gero.

Bestalde, Gizonezkoen Bigarren Senior Autonomikoan jokatu duen CBASK IFUEL-ek asteburuan jokatuak partidaren garaipen polita lortu zuen, 53 eta 45, CB Noain taldearen kontra. Larunbatean, 16:00etan, Berriozar hartuko du Zelandin.

Senior emakumezkoen itzulera Aspaldiko partez, Altsasuko CBASK saskibalo klubak emakumezkoen senior taldea du. Lehen jardunaldian bikain aritu ziren CBASK-Xabi Gorritz Tattoos taldekoak, eta 64 eta 51 irabazi zituen San Ignaciori. Asteburuan, aldiz, Larraona Claretaren kontra 52 eta 32 galdu zuten. Larunbatean Universidad de Navarra taldea hartuko dute, Zelandin, 18:00etan.



Urri Trans programa ostiralean Uhartea Arakilen hasi zen, 'De vuelta en casa' dokumentalarekin. @BERDINTASUNAS

Errealitatea azaleratzen

'Mi pequeño gran samurai' dokumentalak Ekairen historia kontatzen du. Bihar filmaren emanaldia eta Naizen adingabe transexualen elkarteko kideen testigantzak izanen dira Lakuntzan. Ander Oyarzabalek ere haren liburuaz eta esperientziak hitz egin zuen, Ziordian

Eneida C. M. / Erkuden R. B. LAKUNTZA Ekai Lersundi Ondarroako gazte bat zen. Naizen elkarteko "lehenetarikoz gazte bat" izan zen, elkartea hasi zenean gehienak haur txikiak zirela azaldu du Bea Sever elkarteko kideak. "Berarekin konturatu ginen, hain zuzen ere, berandu iritsi ginela, ez geundela ondo egiten. Haurtzaroen familiekin eta ikastetxeekin lan egiten genuen, eta nahikoa zen". Kasu honekin ikusi zuten gazteen artean "zeozer" gehiago egin behar zutela. "Askotan motxila handiarekin iristen ziren eta Ekaik autoestimua oso kaltetua zuela ikusi genuen eta inork ez zuen asmatu zelan lagundu". Ekai hormonazioaren zain zegoen, "eta agian horrek bere mina arinduko zuen. Hormonazio hori atzeratu eta atzeratu... ez ginen iritsi".

Ekai bere buruaz beste egin zuen. 2019an Arantza Ibarra zu-

zendariak Ekairen historia film dokumental batean jaso zuen, heriotzaren lehenengo urteurrenean: *Mi pequeño gran samurai*. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun eta Kattalingune Nafarroako LGTBI+ zerbitzuek antolatuta Urri Trans programaren barruan film dokumentalaren emanaldia izanen da gaur, urriak 21, ostirala, Lakuntzako kultur etxean (19:00etan). Filma aurkezten Naizen elkarteko kideak egonen dira, tartean Bea Sever. Haien esperientziak hitz eginen dute ere: "Informazio eza dagoenez, gezurrak zabaltzen dira eta jendeak

"HITZALDIK HORRETARAKO DIRA, INFORMAZIOIK ETORRIKO DA NORMALIZAZIOA"

sinisten ditu. Horiek kaltetu egiten dituzte transexualen bizitzak; batzuetan, heriotzaraino. Hitzaldiak horretarako dira, uste dugu informazioetik etorriko dela egoera honen normalizazioa".

Arantza Ibarra zuzendaria Iruñean bizi da baina jaiotzez Ondarrutarra da eta Ekairen familia ezagutzen zuen. "Berak aspaldian egin nahi zuen transexualitatearen inguruko zer edo zer eta Ekairen heriotzak hunkituta ulertu zuen hor zegoela kontatu behar zuena". Filman Ekairen gurasoak, gaztearen irudiak, Naizen elkarteko kideak gaztearen heriotzak haiendako zer izan zen kontatzen eta heriotzaren lehenengo urteurrenean egin zuten ekitaldiaren irudiak agertzen dira. "Batez ere helburua da salatzea patologiazioaren ondorioz zer sufrimendu pairatzen zuten eta pairatzen duten oraindik ere.

Behar dituzten tratamenduak ez direlako iristen, berandu adierazten dutelako zer geratzen den askotan. Ez dakitelako errealitate hori existitzen denik ere, ikastetxean ez delako aipatzen eta gizartean zer edo zer aipatzen dutenean negatiboa delako". Pertsonen garapenean kalte handia egiten duela salatu du.

Bizipenak

Lakuntzako kultur etxean Naizen elkarteko bi familiak haien bizipenak kontatuko dituzte. Ama batek haren nerabezaroan trantsizioa eginda nola bizitu duten kontatuko du eta beste batek txikitzen trantsizioa egitean zer nolako desberdintasun "handiak" dauden azalduko du. "Goiz goizetik adierazi ahal izatea onurgarria da, horretarako gizarte osoak mahai gainean jarri behar du errealitatea, bestela, kalte handiak direlako, Ekairen kasuan bezala buelta ez dituztenak".

Naizen elkarte sortu zenean helburua familien artean elkartasun sarea eta "babes emozionala" ematea eta informazioa trukatzea zen. "Errealitate honetara hurbildu ginenean pediatarren-

gana, ikastolara edo psikologora joaten ginen eta inork ez zekien ezer edo okerreko mezuak ematen zizkiguten". Konturatu ziren haien artean baino ez zutela babes jasoko. "Hasi ginen profesional horiei formazioak ematen". Haien seme-alaben eskubideen alde lan egiten hasi ziren, informazioa zabaltzen eta hitzaldiak ematen.


"Instituzioekin egindako lana nahiko positiboa izan da. Orain atzerapausoak somatzen ari gara. Baina orain arte oso ondo egin izan dugu lan". Nafarroan legea "oso-oso ona" dela esan du, eta trans legearen garapenean lanean ari direla esan du Severrek: "Agian hor indar gehiago beharko zen instituzioen aldetik; hezkuntza protokoloa eguneratzeko eta horrelako gauzetan". Erakundeek "haien partetik jartzen" duten arren, Severrek uste du ez direla "beharrezko ekintzak" martxan jartzen: "Guretzako beharrezkoa da informazioa helaraztea eta profesionalak formatzea". Transexualak "betidanik" existitu direla azaldu du, "eta errealitate horren aurrean edozein teoriaren aitzakiarekin bat ez bazatoz, errealitatea ezin da aldatu".

"Bakoitza den bezalakoa da eta gustu eta abar desberdinak ditugu"

ANDER OYARZABAL IDAZLEA

Ander Oyarzabalek *Sentimientos encontrados* liburuaz aurkeztu zuen atzo, Urri Trans programaren barruan, Ziordiako liburutegian.

Nor da Ander Oyarzabal? 15 urteko mutiko trans bat. Ez du bizitza batere erraza izan, eta oztopo asko pasatu behar izan ditu. Baina dena egiteko gai izan da, baita aurrerapausoak emateko ere. **Liburuaz biografiaz bat da?** Bai, nire bizitza kontatzen dut, nik neure burutik kontatuta. Transexualitatea ikusgai jarri nahi nuen, baita nerabezaroan pertsona batek eduki ditzakeen arazoak normalak direla ere. Hau da, denarekin aurrera egin dezakegula. Nerabezaroan barruan neukan guztia lehertu zen; honaino esan nion nire buruari. **Kolore askotakoak garelako aipatzen duzu.**



UTZITAKOIA

Bakoitza den bezalakoa da eta gustu, sentimendu, pentsamendu eta abar desberdinak ditugu. Horrek bakarrak izatera eramaten gaitu.

Nolakoak dira aurkezpenak?

Nire burua aurkeztu, hobbiek, gustuak eta abar eta galderak egiten dizkirate. Gehien galdetzen didatena da ea liburuaz ikastolatan aurkeztu dudana. Gustatuko litzaidakeen gauza bat da.

Altsasuko ferietako argazkilariak

36. urtez Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Altsasuko ferietako Argazki Rallya antolatu zuen igandean. Azokak bitartean argazkilariak bost gaietako irudiak hartu behar zituzten. Sari banaketa egunean bertan egin zuten

ALTSASU

Altsasu, Feriak, Sentimendua, Udazkena eta Beldurra. Altsasuko Mendigoizaleak antolatzen duten Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren aurtengo edizioan argazkilariak bost gai horiek irudikatzeko argazkiak hartu behar izan zituzten igandean, feriaren egunean. Bi ordu inguru izan zituzten lana betetzeko. Behin argazkiak eginda, epaimahaiak irudiak aztertu zituen eta egunean bertan sari banaketa egin zuten Gure Etxean. 2021. urtean egindako berrikuntza bat izan zen, izan ere, aurretik ekitaldia aurre-erago egiten zuten. Aurreko esperientzia ona kontuan hartuta, eta aldaketa pare bat egin ondoren, sariak egunean bertan banatzea erabaki zuten. Ondoren, argazkilariak eta antolatzailerak bazkaltzera joan ziren.

Errepikatzeke

2020. urtean izan ezik, Altsasuko Mendigoizaleak 36. urtez antolatu du ferietako argazki rallya. Aurten 26 argazkilarik parte hartu dute, eta sailkapena, ohi bezala, Herriz herri deitutako txapelketarako baliagarria da. Abarzuzatik etorritako Carlos Mediavillak irabazi zuen Bilduma Onenaren saria, baita Altsasuko argazki onenaren saria ere. Bigarren Bilduma Onenaren saria Gasteiztik etorritako Idoia Alonsorendako izan zen, eta hirugarren saria Donostiako Jose Antonio Amusteguiendako. Bazkide Onenaren saria Fernando Moreno altsasuarrak irabazi zuen eta haurren mailan Bilduma Onenaren saria Aiala Dorronsoro altsasuarrak irabazi zuen, eta bigarrena Iruene Negrerok irabazi zuen.

Idoia Alonsok lehenengo aldiz parte hartu zuen Altsasuko ferietako Argazki Rallyan. "Niretako, argazkilaritza profesiona-



Altsasuko ferietako 36. Argazki Rallyaren irabazleak. UTZITAKOIA

ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK-EN 36. ARGAZKI RALLYAN 26 ARGAZKILARIK PARTE HARTU ZUTEN

lean hasten ari naizenez, sari hau izugarria izan da". Poz-ozik dagoela esan zuen gasteiztarrek. "Edizio honetan parte hartzea plazera izan da". Itzuli delo aitortu zuen, "hurrengoan lehenengo saria lortzera".

Hirugarren sariaren irabazleak, Jose Antonio Amustegui esan zuenez, argazkilaritza zalea da, "eta afizio honengatik ilusio gehien egiten didana argazki rallyak dira". Altsasuko ferietakoa "klasiko" bat dela esan zuen. "Hemen irabazten dudana lehenengo saria da". Argazki rallyaren antolakuntzagatik antolatzailerak zoriondu nahi izan zituzten, eta saria lagunekin "ospatuko" zuela esan zuen.

Fernando Moreno altsasuarrak ez da argazki rallyan parte hartzen duen lehenengo aldia, eta datorren urtetarako erronkak jarri dizkio bere buruari ere:

"Berritza. Badira argazki batzuk oso ikusiak ditugula". Morenok gaueko argazkilaritza egiten du, eta berarendako erronka gai berrien inguruko argazkiak egitea izango zela esan zuen. "Datorren urterako berritzen saiatuko naiz". Argazki rallyan parte hartzen oso ongi pasa zuela gaineratu zuen.

Etorkizuna

Altsasuko ferietako Argazki Rallyan haurren kategoria ere badago, eta aurten bi argazkilarik txiki aurkeztu ziren: Iruene Negredo eta Aiala Dorronsoro altsasuarrak. Egindako lanagatik biek saria eraman zuten.

Aiala Dorronsorok irabazi zuen lehenengo saria, eta argazki rallytik gehien gustatu zitzaiona argazkiak egiteko Altsasu "osotik" ibiltzea izan zela esan zuen; "gehien gustatzen zaidana argazkiak egitea delako". Oso pozik zegoen irabazitako trofeoarekin.

Iruene Negredori gehien gustatu zitzaiona bere izebarekin argazkiak ateratzera joatea izan zen, eta poz-ozik zegoen parte hartzeagatik eta saria irabazteagatik.



XI. Arteazoka Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

Sakanako hamaika artisten hamaikagarren erakusleihoa

Artebide elkarteak antolatutako Arteazoka mustu zuten ostiralean, Altsasuko Ferien baitan

ALTSASU

Altsasuko Ferietan ganadu azoka, nekazal produktuen eta artisau azoka eta, duela hamaika urte, Arte azoka daude, besteak beste. Ostiralean Iortia kultur gunea artisten eta herritarren arteko topaleku bihurtu zen, Sakanako sortzaileen erakusketak kolektiboaren mustutze ekitaldian. DJ Txenek irekiera girotu zuen, eta artistek haien lanak azaltzeko aukera izan zuten. Izenak dioen bezala, eta dagoneko ohitura bihurtu den bezala, igandean artelanak kalera atera zituzten eta azoka egin zuten. Arteazoka urriaren 30era arte zabalik egonen da.

Artistak

Guztira, 24 artista sakandarrek osatu dute 2022ko arteazoka: Adela Sánchez, Ana Goikoetxea Salazar, Angel Antonio Agirre, Argine Berastegi, Beatriz de la Vega, Helena Santano Cid, Jesús Miguel Amoztegi, Itziar Nazabal, Joseba Salegi, Josetxo Crespo, Joxean Maiza, Jesús Mari Olmos, Maite Miguel Zufiaurre, Marijostai, Patricia Paats, Rosa Arnanz Zufiaurre, Susana Anguiano, Sagri Mauleon Ezkutari, Arturo Arrizabalaga, Txali Poyo, Esti Garcia, Isaac Landa, Irantz Garcia eta Cristina Fernández. Gainera, ohikoa denez, artista gonbidatuak izan dira ere: Isabel Sánchez, Asun del Pozo, Cabeza de Artista, Zorione Méndez Martín, Asún Requena, Ana Martínez de Eulate eta Estibalitz Álvarez.

Arteazoka Artebide elkarteak sustatu zuen. Ideia, hain zuzen, Manolita Thunders Altsasuko artistarena izan zen. Sakanako artisten artean komentatzen zuten ferietan ganadu eta artisau azokak antolatzen ziren bezala, haiek ere azoka antolatu zezaketela azaldu zuen Helena Santano artistak. Bailaran artista asko zeuden, eta horiek erakusleihoa bat behar zuten. Ideian sinisten zuten, eta mugitzen hasi ziren, duela hamaika urte, Iortia kultur gunearen erakusketa gelan gauzatu zuten arte.

Eskulturak, margoak, instalazioak, argazkiak... Artista bakoitzak pieza bat edo gehiago erakusten ditu, eta artelan bakoitzaren ondoan izenburua eta teknika aipatzen da. Badira Arteazokarako propio sortzen dituzten artistak, lehenengo urteetan ohikoagoa zena, eta badira aurretik egindako lanak aurkezten dituztenak ere. Dena dela, urtero erakusketa bat eta desberdina egiten dute. 2019an gai bat zehaztu zuten, eta "hausnarketa" egin behar zutela esan zuen Santanok, bide horretatik jarraitu behar zuten edo ez erabakitzeke.

Arteazokak herri mailako interes artistiko desberdinak biltzen ditu, eta, herritarren eta artearen arteko topaketa bihurtzen da ere. Herritarrek Sakana mailan sortzen den artea ikusteko aukera dute, "ondare kulturala" sortzen ari dira.



Orritz dantza taldeko kideak Baigorri, Arrola dantza taldearen ikastaroan. UTZITAKOIA

Esperientzien trukaketa

Aurreko asteburuan Orritz dantza taldeko zenbait kidek emanaldia eskaini zuten Baigorri. Bueltan, Baigorriko Arrola dantza taldeak jaialdia eginen du larunbatean, urriaren 22an, Irurtzongo frontoian. Trukean ere dantza ikastaroak egin dituzte

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN Baxe Nafarroako eta Euskal Herriko iparraldeko jauziak desberdinak direla aipatu du Irati Ollakarizketa Orritz dantza taldeko kideak. Aurreko asteburuan Orritzeko talde batek Baigorri dantza jaialdia egin zuen, eta ondoren Arrola dantza taldekoek dantza bat irakatsi zien. Trukearen bueltan baxenafartarrak, bihar, urriak 22, larunbata, Irurtzunen egonen dira. 12:30ean dantza jaialdia eginen dute frontoian, eta arratsaldean dantzari irurtzundarrek dantza bat irakatsiko die bisitariei.

Nafarroako Dantzarien Biltzarrak proposatu zien trukaketa. "Nafarroako beste talde batekin trukea egiteko aukera zegoela esan ziguten, eta Baigorriko talde batekin harremanetan jarri gintuen". Hasiera batean asteburu oso bateko kontua izan

behar zuen, Ollakarizketak azaldu duenez, baina "gauza bat eta beste" egun bakarra egon ziren Baigorri eta Arrola dantza taldekoak ere egun bakarra pasako dute Irurtzunen. "Egia esan, horrek elkar ezagutzeko aukera nahiko murriztu du". Aurreko asteburuan Orritz dantza taldeko hamabost bat dantzari egon ziren Baigorri, eta egindako dantza emanaldiaren ondoren Irurtzongo dantza taldeko eta Baigorriko Arrola dantza taldeko kideak elkarrekin bazkaltzeko aukera izan zuten. Arrolako dantzariak eskainitako ikasta-

**ORRITZ BAIGORRI
EGON ZEN, ETA
ARROLA DANTZA
TALDEA IRURTZUNEN
EGONEN DA**

roan ere harremana pixka bat estutzeko aukera eman zien.

"Hasiera batean jauzien modukoak direla esan ziguten, baina guk ezagutzen ditugun jauziak, gure erdizka, pika, ebats eta horiek guztiak oso modu desberdinean egiten ditugu". Irurtzundarrak eta Nafarroa Garaiko zenbat dantza taldek jauziak "lurretik" egiten dituztela azaldu du Ollakarizketak, eta Baxe Nafarroan, aldiz, "saltoka" egiten dituzte. "Dantzak oso desberdinak dira bereziki horregatik". Dantza baten zenbait zati ikasteko aukera izan zuten. Euskal dantzen artean desberdintasunak daude, "baita hemengo herriaren dantzaren artean ere desberdintasunak daude". Baigorri denbora tarte gutxi egon zirenez, ezin izan zuten dantza taldearen emanaldia nola izanen den aurrekusi; beraz, Irurtzungen-

dako ere sorpresa izanen da bihar emanen dute jaialdia.

Dantza jaialdiaren ondoren Orritz dantza taldeko kideek Iribasko Ingurutxo irakatsiko die Baigorriko dantzari. "Esan zigutenagatik ideia zen hemen inguruko dantza bat irakastea, ahal bazen Irurtzongo dantza bat, baina Irurtzunen ez dugu gurea den dantzarik. Hortaz, Iribasko Ingurutxo irakastea erabaki genuen". Orritz dantza taldeak "askotan" egiten duen dantza bat da, eta Iribas Irurtzundik gertu dago. "Inguruko dantzetatik asko gustatzen zaigun bat da, dantzatu egiten dugu eta ideia polita irudituz gertu zitzagun hori irakastea".

Uda "gogorra" izan du Orritz dantza taldeak. Baina onerako. Emanaldi asko izan dituztela esan du Ollakarizketak, "nik uste normalean baino gehiago". Une honetan taldea indartsu dago, gazte asko sartu dira eta dantza-

riak ilusioarekin eta gogoarekin daude. "Momentu batzuetan larriago egon da, baina orain bereziki sasoi onean dago taldea".

Udazkenekoa

Urtero Irurtzongo dantza taldeak Udazkeneko dantza jaialdia antolatzen du, eta aurten Arrola dantza taldearen jaialdia eta udazkenekoa aurrera eramatea pentsatu bazuten ere, "gauzak atzeratzen joan direla ikusi dugu", eta Baigorrikoen dantza jaialdikoak udazkenekoa ere izatea erabaki dute. "Ez dakit udaberriaren eginen dugun, hitz egin behar dugu oraindik".

Momentuz, "bi edo hiru" dantza berri ikasten ari dira. Baigorri ikasitakoa "momentuz" erreperitorioan sartzea "zaila" ikusten dute, egun bakar batean ikasitako zerbait delako eta talde gehienera irakatsi beharko dietelako, "dantza polita da, eta nik uste aurreago egin dezakegula".



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Beldur

Beldur naiz ez ote gaituen izutuko, ez ote gaituen beteko, ez ote gaituen hustuko.

Beldur naiz jendea ez ote den konprometituko. Beldur naiz ez ote duen zainduko.

Ez ote dugun gure buruaz gain, besteengatik egingo.

Beldur naiz ez ote gaituen etsipenak hartuko eta beldurrak itoko. Desilusioaren beldur naiz.

Beldur naiz maitasunaren beldur gara.



11 GALDERA



Eneka Irizar, Igor Cerrillo eta Amaia Iparragirre, Mintzakideak.

"Euskaraz hitz egiteko une eta toki lasaia da"

Eneka Irizar, Igor Cerrillo eta Amaia Iparragirre ziordiarak Mintzakideak dira. Ostiral arratsaldero herriko liburutegian biltzen dira, "kafearen" inguruan. Ana Sanchez egoten da ere haiekin. Euskaraz praktikatzeko programaren denboraldia hasi da

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

1 Zer da Mintzakide?

Amaia: Mintza horrek esanahia du: mintza eta kide. Euskaraz hitz egiteko toki batean biltzen garen kide edo pertsona batzuk.

2 Zergatik parte hartzen duzue?

Igor: Gutxienez Ziordian, momentu batean, euskaraz lasai egin ahal izateko. Momentu jatorra da, lasaia, leku eroso batean.

3 Zenbat denbora daramazue parte hartzen?

Eneka: Bost edo sei urte. Ni hasi nintzenerako taldea sortuta zegoen; gehiago izan daiteke. **A.:** Zazpi edo zortzi urte, bai. Urte dezente dira. Ziordian sortu zen lehenengo taldea izan zen. Hasieran beste talde bat zegoen, tabernan biltzen zena.

I.: Ni tabernako taldean egoten nintzen. Azkenean, tabernan beste fundamentu bat zegoen. Jendea etortzen eta joaten zen. **A.:** Hemen lasaia gaude.

4 Zenbat mintzakide biltzen zarete?

A.: Orain arte sei biltzen ginen, orain lau edo bost bilduko gara. **E.:** Aurreko urtean taldea handitu behar zen. Bi edo hiru etorri ziren eta, azkenean, lanagatik eta abar ezin izan zuten. Jarraian sei egon gara.

5 Zer egiten duzue?

E.: Liburutegian biltzen gara eta euskaraz hitz egitera etortzen gara, zerrenda bat egiten dugu eta bertan aste bakoitzean postrea ekartzea nori tokatzen zaion banatzen dugu. Orduan, beti elkartzen gara postrearen eta kafearen inguru-

ruan. Errezetak elkarri pasatzen dizkiogu...

A.: Gastronomiaren inguruko hiztegia asko lantzen dugu.

6 Eta zertaz hitz egiten duzue?

A.: Denetarik. Politika, munduari buruz, gertatzen diren gauzak... Inprobisatzen dugu. **E.:** Edozein gai lantzen dugu. Postreak, herrian zerbait gertatzen bada horri buruz hitz egiten dugu, seme-alaben heziketari buruz ere hitz egiten dugu. Seme-alabak ditugunez eta askotan ateratzen diren gaiak dira.

7 Noizbait ekimenen bat gehiago egitea pentsatu duzue?

A.: Mintzakide programak Sakana mailan antolatzen ditu. Arduradunak informazio bidaltzen digu eta izena emateko animatzen gaitu, baina, egia esan, ez gara animatu.

I.: Askotan komentatzen dugu asteburuan zer dagoen eta parte hartzeko aukera.

8 Zergatik da garrantzitsua horrelako programa bat?

E.: Ziordia bezalako herri batean aukera ematen dizu beste pertsona batzuekin euskaraz harremantzeko, agian pertsona batekin joera duzu gaztelaniaz hitz egiteko, eta mintzakideri esker berarekin euskaraz egiten hasten zara. Praktikatzeko toki gehiagorik ez daukan jendearentzat egokia da.

9 Zuen euskararen erabilera aldatu da?

A.: Gure artean bai. Igorrekin, adibidez, ez genuen euskaraz hitz egiten, eta orain bai.

10 Gehiagotan biltzea pentsatu duzue?

A.: Ez. Tarte honekin nahikoa dugu. Norbaitek proposatuko balu beste ordu eta beste toki bat ongietorri izango zen. Liburutegian ordu hau lasaia izaten da, eta horregatik jarri dugu ostiraletan 16:00etatik 17:00etara. Beste talde bat aterako balitz arrakasta izugarria izango litzateke Ziordia baterako. Edo jende gehiago animatzen bada ere.

11 Mintzakide izan nahi duenak zer egin behar du?

A.: Idoiak hartuko du, Mintzakideko arduraduna. Whatsapp mezua bidaltzeko aukera ere badago. Ziordiako taldera etortzeko telefono horretara deitu edo liburutegira etorri.

HASI ZURE EGUTEGIA prestatzen



NEURRI ETA EUSKARRI DESBERDINAK

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

gik DISEÑUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu